

HETEROPATRIARKATU
KAPITALISTARI

Plantat!

CREBA
FEMINISTA

Martxoak

8



Mobilizazioetan
parte hartzeko deia egin du
Oñatiko M8 Plataformak



HERRITARREN ARRETA ZERBITZUA ateak zabaltzeko prest

Administrazioarekiko tramiteak **leihatila bakarrean** egiteko zerbitzua (**H.A.Z.**) egokitu dute udaletxean, alondegi aldeko bulegoan. **Martxoaren 11n** irekiko ditu ateak.

Martxoaren 11n irekiko ditu ateak Herritarren Arreta Zerbitzu (H.A.Z.) berriak, udal-tertxeko behe solairuan, alondegi aldera.

Zerbitzu berri honi esker, herritarrek leihatila bakarrean egin ahal izango dituzte udalarekin zerikusia duten tramiteak: errolda agiriak, eskari-orrien erregistroa, obra baimenak, zerga eta tasen ordainketa, erreklamazioak...

Gainera, udalak eta foru aldundiak duten hitzarmenari esker, diputazioaren eskumenekoak diren hainba tramite ere (familia ugarien tituluak, hobari eskaerak...) udaleko H.A.Z. zerbitzuan egin ahal izango dira, herritarra Donostiara joaten ibili beharrik gabe. Eta laster, Jaurlaritzan edo estatuko beste administrazio batzuetan egin beharreko tramiteak ere egin ahal izango dira H.A.Z. bulegoan.

Helburua da, azken batean zerbitzu integrala ematea

herritarri. Herritarren eta udalaren arteko harremanak arintzea, modu proaktiboan, administrazioarekiko egin beharreko tramite guztiak leihatila bakarrean egin ahal izan ditzaten, bulego batek bestera ibili beharrik izan gabe.



Alondegi aldeko atetik du sarrera HAZ zerbitzuak



Herritarrei zerbitzu emateko hiru langile egongo dira H.A.Z. bulegoan

Urte askotan zuekin

Portu Kale 5 • Tel: 943 78 12 65 • www.mapfre.es

Jaione San Miguel Ugarte



MAPFRE
OÑATI

HIRU ARRETA PUNTU

H.A.Z. bulegoan hiru langile egongo dira herritarrei arreta eskaintzen. Laugarren arreta mahai bat ere egokitu dute, errefortzu moduan erabiliko dena momentu puntaletan (udalekuetako izen-emateak edo kanpaina bereziak egiten direnean) zerbitzua arintzeko.

Bulegoaren beste aldean bilerak egiteko gela bat ere egokitu dute, herritarrek udal teknikariekin batzartu behar dutenetan erabili ahal izateko. Gainera, ordenagailu bat ere egongo da herritarren eskura, gestioak online egin ahal izateko, eta haurrentzako txoko bat ere egongo da (paper eta margoekin) bertan entretenitu daitezzen, helduek gestioak egin bitartean.

H.A.Z. zerbitzua goizez (7:30-15:30) egongo da irekita, astelehenetik ostiralera. Gainerako orduetan, sarrerako makinak erabilgarri egongo dira 20:30ak arte.



BULEGO ELEKTRONIKOA. HAZ zerbitzuko sarreran dauden makinak bidez hainbat tramite egin ahal izango dira.



BILERA GELA. Beharrezkoa denean, udal teknikariekin batzartu ahal izateko bilera gela ere egokitu dute HAZ zerbitzuan

H.A.Z. ZERBITZUAREN ORDUTEGIA

ARRETA ZERBITZUA

Astelehenetik ostiralera
07:30 - 15:30
arreta presentziala
eskainiko da

BULEGO ELEKTRONIKOA

H.A.Z. zerbitzuko sarreran dauden makinetan hainbat tramite egin ahal izango dira. Gune hau egun osoan egongo da erabilgarri, iluntzeko 20:30ak arte.

HONDAKIN BILKETAKO ZERBITZUA

Hondakinak ateratzeko kuboak edo olio-poteak eskuratzeko zerbitzua arratsaldez (17:00-20:30) eskainiko da HAZ bulegoan

Egunero, ostiral eta larunbat gauetan izan ezik


**LAPIKO
GORRI**



MENU TXULETA

- Baratzeko entsalada
- Txuleta
- Postrea
- Kriantza, ardo txuria edo sagardoa

On egin!

26[€]

ULTZEGIN 11, OÑATI • Tel. 943 50 20 70 •   

Kiroldegiko obrak lizitaziora

► Kiroldegia berritzeko lehen faseko lanak lizitaziora ateratzea erabaki du udalak, **8,4 milioiko** (BEZ barne) aurrekontuarekin

► Udan hasiko dira lanak berdegunean. **2020ko urtarriletik abendurarte** itxita egongo dira igerilekua eta gimnasioa

Udalbatzak, aho batez, argi berdea eman dio Zubikoa kiroldegiko birgaitze eta handitze proiektuaren lehen faseko lanak lizitaziora ateratzeari, 8,4 milioi euroko (BEZ barne) aurrekontuarekin.

Lizitazioan ustekaberik ez bada, lanak uda partean hasiko dira, baina lehen hilabeteetako lanak (urtea amaitu arte) igerilekuko belardian egongo dira (lurk entze lanak eta eraikin berriaren egitura) eta ez dute oztopatuko kiroldegiko ohiko funtzionamendua.

OBAREN ERAGINA

Aurreikuspenak betetzen bada, 2020ko urtarrilean kiroldegi barruan hasiko dira berritze lanak eta, ondorioz, hainbat zerbitzu (igerilekua, gimnasioa, fitness gelak...) itxi egin beharko dira. Urtebetez egongo dira itxita, 2020ko urte amaiera arte.

Kirol kantxak (berdea eta urdina) eta pilotalekua erabilgarri egongo dira obrak dirauen bitartean. Horretarako, galdara gela berria egokituko da tabernaren gainaldean.

Gainera, udalaren asmoa da gimnasioa beste eraikin publikoren batean egokitzea.

KONTSUMOA AURREZTU

Energia eta ur kontsumo eraginkorra eta mugatua bermatzeko hainbat neurri hartuko dira: geotermia eta energia berriztagarriak, isolamendua teilatu eta fatxadetan...

Bigarren faserako utziko dira bi padel pista eta tenis pista berria egiteko lanak, besteak beste, baina oraindik ez da erabaki noiz egingo diren. 1,6 milioiko aurrekontua dute 2. faseko lanek.



Goiko irudiak erakusten duen moduan, **eraikin berria** erantsiko zaio kiroldegiari berdegune aldera, **Igerilekuen** kokapena eta orientazioa ere aldatu egingo da, beheko sekzioak erakusten duen moduan. Igerileku txikia hegoaldeko fatxadara ekarriko da, eta igerileku handia trabesera egokituko da. Ontzi handiak **9 kale** izango ditu, eta **100 lagunentzako harmailak** ere egokituko dira.



LEHEN FASEKO LAN NAGUSIAK


- Eraikin berria erantsiko zaio kiroldegiari belardi aldera.
- Eraikin berriaren gainaldean solariuma egokituko da, berdegunean galduko den espazioa konpentsatzeko.
- Gune heze osoa (igerileku berriak, sauna lehorra eta hezea, aldagelak...) goiko solairuan egokituko da. Ontzi handiak 9 kale izango ditu (4 gehiago) eta ontzi txikia ere handitu egingo da 6x12 m.-tik 8x17-ra
- Kanpoko berdegunean haurrentzako ur-jolasen gunea egokituko da.
- Fitness gunea (gimnasioa, rokodromoa, pilates, karate...) behe solairuan egokituko da, aldagela propioekin.
- Kantxa nagusiko (berdea) aldagelak eta biltegiak berrituko dira, eta zorua konponduko.
- Pilotalekuan larraldietarako ate berria egokituko da, eta horri esker edukiera handitu ahal izango da. Zorua ere konponduko da.
- Bi igogailu instalatuko dira, tenis pistetara eta gune hezerako sarbidea irisgarri egiteko.
- Kiroldegiko eraikin nagusiko eta pilotalekuko teilatuak eraberrituko dira.



Irudiak erakusten du non kokatuko diren eraikin berria, komunikaziorako gunea (igogailua), estalitako padel pistak eta estali gabeko tenis pista berria. Padel eta tenis pista berriak bigarren fasean egingo dira.

BEHE SOLAIRUA

1. Ekintza gidatuetarako (pilates, aerobik...) gelak.
2. Gimnasioa (gaur egun dagoen barruko patioa ere hartuko du).
3. Karate gela
4. Rokodromoa (72,19m²)
5. Boulder gunea (76,86 m²)
6. Bi squash gela
7. Igogailua
8. Instalazioetako gunea
9. Galdarak eta mantenimendua
10. Bulegoak eta bilera gelak
11. Igerilekuko harmailera igotzeko eskailera
12. Hall edo harrera gunea
13. Kontrol gunea
14. Gune hezera igotzeko eskailera eta igogailua
15. Fitness guneko aldagelak
16. Fitness guneko komunak
17. Fitness gunerako sarbidea



GOIKO SOLAIRUA

1. Igerileku txikia
2. Igerileku handia, 9 kalekoa
3. Harmailak, 100 lagunentzako
4. Sorosleen gunea
5. Igerilekura sartzeko dutxak
6. Igerilekuko komunak
7. Berdegunera irteteko atea
8. Igerileku txikiaren goiko aldean egongo den solariumera igotzeko
9. Sauna gunea (lehorra eta hezea)
10. Igerilekuko aldagelak, gizezkoena eta emakumezkoena
11. Igerilekuko aldagela mistoa
12. Egokitutako aldagelak
13. Komunak
14. Gune hezera igotzeko eskailera eta igogailua
15. Igerilekuko harmailara igotzeko eskailera
16. Egokitutako komuna eta biltegia
17. Langileentzako aldagela

 **COINBROKER**
OÑATI ASEGURU ARTEKARITZA
CORREDURIA DE SEGUROS

Arantzuko Ama Kalea, 9 • 20560 Oñati

943 089 006 | oinati@coinbroker.eus
www.coinbroker.eus

 *Amalia Igartua*
ARKITEKTURA ESTUDIOA

-Zaharberritzeak -Ikuskaritza Teknikoak (ITE) -Ziurtagiri energetikoak (CEE)
-Izogailuen eta 0 kotara proiektuak -Eraikinen mantentze planak (PUM)
-Jarduera lizentziak -Fatxaden eraberritze energetikoa -Diru laguntzen gestioa

tel: 677 31 20 57 • email: amaiigartua@gmail.com • Oñati

Bizitzak erdigunean! | Las vidas en el centro! | La vie au centre!



Oñatiko Emakume* guztien eta gizon guztien onurarako, Mugimendu Feminista hazi eta indartzeko eguna da 2019ko Martxoaren 8a. Irmoki uste dugu Emakumeon* arteko laguntza sareak sortzen lagun dezakeen eguna dela. Hain zuzen, sare more horiek Emakumeon* bizi prozesuak samurtzen eta bizitzak erdigunean jarriko dituen Oñati herri parekideago baten eraikuntzan lagunduko dute.

Emakume* bakoitzaren aniztasunaren errespetuari lehentasuna emango dion Martxoaren 8a izatea nahi dugu. Emakume* guztiok ez gara berdinak, ezta nahi ere. Era berean, ez gatoz leku beretik eta ez goaz leku berera. Gainera Emakume* denok ez dugu zailtasun berdinekin topo egiten eta horren arabera, bizitzari modu ezberdinetan egingo diogu aurre. Anitzak gara eta gure artean ere desberdintasunak daude, hain zuzen, gurutzatzen gaituzten zapalkuntza ardatzen ondorioz: arrazakeria, kapazismoa, klasismoa eta heteroaraua. Horregatik, Emakumeon* artean dauden botere harremanak ere eraldatu nahi ditugu.

Emakumeok* gizarte talde edo kolektibo bat bagina bezala tratatuak gara, minoria egoeran dauden gizarte taldeei bezalaxe, sistema zapaltzaileek gutxiago garenaren estatusa egokitzen digute, eta Emakumeok* populazioaren erdia gara. Bestetik Emakumeok* lan erreproduktiboa eta lan produktiboa egiten ditugu, merkatuak kapital gehiago metatu dezan, ahaztu gabe pertsona produktiboak eta erreproduktiboak erditu eta hazten ditugula. Gainera, sistema patriarkal honetan, legediak emakume eta gizonen berdintasuna aldarrikatzen dute, baina legedi hauek erantzukizunak zurrizko besterik ez dira. Izan ere, datuek bestelakoa diote eta horregatik, feministok justizia soziala aldarrikatzen dugu.

Munduko edozein herrietan eta Euskal Herrian, Emakume* izate hutsagatik bizitzen ditugun zailtasunak, hau da, esparru guztietan bereizkeria zein bazterkeria egoerak eta norberaren bizi-errealitateak dakartzen egoera zailekin gurutzatzen direnean, Emakumeon* bizi-baldintzak are gehiago okertzen dira. Horretaz jabetzeko, gertaera hauei erreparatzea besterik ez dago: mi-grazio prozesuak, hazkuntza eta menpekotasun egoeran dauden pertsonen zaintza integrala, zaharkeria edo adin-arrazoiagatik diskriminazioak, aniztasun funtzionala duten pertsonak alboratzea eta ez-gaitu bezala hezitzea, baserrikako nekazarien erreko-nozimendu eza, LGTBIQ+fobia, prostituten lana sindikalizatzeko ukapena, enplegu prekarioak, espazio publikoaren erabilera, zerbitzu publikoen azpikontratazioak, oinarrizko eta kalitatezko zerbitzuak eskuratzea gaitasun ekonomikoaren arabera...

Guzti horrek, pertsona bakoitzak bizirauteko derrigorrezkoa duen zaintza kaltetzen du. Horregatik, 2019ko Greba Feministak, zaintzen gatazka azalatu nahi du, guztiak kontuan harturik: etxeok, zaintza lan ordainduak, gaizki ordainduak, ordaindu gabekoak eta sistema publikoak kudeatzen dituenak. Izatez, zaintza lan horiek gabe ezin daiteke jendarte bat sostengatu, eta Emakumeok* gure bizitzak sostengatu nahi ditugu. Gaur egun Euskal Herrian dugun zaintza eredia Emakumeon*, eta bereziki Emakume* migranteon, esplotazioan oinarritzen da. Horren bestez, jendartearen helburu izan behar dira zaintza lanen erreko-nozimendua eta zaintza lanen arduraren sozializazioa. Hots, gizonak eta egitura publikoek ardura zuzenak hartzea eta guztion bizitzak bermatuko dituen erantzukidetasunean oinarritutako zaintza sistema baten eraikuntza.

Beraz, aurtengo Martxoaren 8an arrazoi ugari ditugu Emakumeon* bizitzak jendartearen erdigunean kokatzeko. Hain zuzen, Emakumeon* parte hartzea handituz eta Emakume* bakoitzak dakarren aniztasuna aberastasun gisa ulertuz, pertsona independente eta osoak bezala bizi nahi dugula aldarrikatuko dugu!!

Berdintasun faltsuaren liluraren aurrean eta matxismoaren adierazpen guztien aurrean, garbi daukagu bizitzak, gorputzak eta ama lurra babesteko erantzuna FEMINISTA izan behar dela. Emakume* guztiok batu eta ozen adieraziko dugu jendarte feminista eraiki nahi dugula!!

Emakume* bakoitzak daki, ze aukera dituen greba gauzatzeko, beraz animo zure lekutik gauzatu ditzakezun eraldaketa txiki bezain garrantzitsuak gauzatzen!! EMAKUME* denok gara beharrezkoak!!



NOLA EGINGO DUGU GREBA?

Iaz bezala, greban parte hartzeko modu ugari egongo dira:

- Lantoki eta ikasgeletan greba eginda.
- Herri eta hirietako mobilizazioetara joanda.
- Zaintzeari utzita eta hori irudikatzeko amantala balkoian eskegita.
- Gure eskualde edo arloan greba antolatuta eta zabaldua.
- Besoko morea eta txapa ipinita grebarekin bat egiten dugula adierazteko.



NORTZUK EGINGO DUGU GREBA?

Emakume helduak, migranteak, gazteak, dibertsitate funtzional anitzak dituzten emakumeak, bollerak, transak, pentsionistak, enplegurik ez dutenak, intersexualak...

Gizonen papera greba indartzea izango da, emakumeek* berau egitea ahalbidetuz.

PARTE HARTU MOBILIZAZIOETAN !!

Martxoak 8: Ostirala

00:00 - Etxaflero Jaurtiketa, Plazan.

08:00 - Katzerolada, Plazan.

09:30 /11:30 - Eskulan Tailerra, Plazan.

12:00 - Kontzentrazioa, Olakuan, Patotan.
Manifestazioa Plazan.

14:00 - Bazkari Autogestionatua Plazan.
(Ekarri zure bazkaria)

16:00 - Kafe baten bueltan Tertulixia Plazan:
Zaintzak.

19:00 - Manifestazioa. Ondoren Ekitaldia, Plazan.

- Eguraldiak ez badu laguntzen, azokan edo gaztelekuan egongo gara.
- Egunean zehar ateratzen dituzun argazkiak bidali hona, onatikom8@gmail.com

Martxoak 9: Zapatua

10:00 - Emakume Eskulangile eta Artisauen Azoka, Plazan.

14:30 - Bazkaria Feminista, Gaztetxian.

UDALEKO BERDINTASUN SAILA

Martxoak 9: Ostirala

19:00 - Kontzertua, Santa Anan.

'Letter to the world'. Munduko emakume konposatzaileen obrak abestuko dituzte Hots eta Ganbara Gazte, Txiki eta Txikitxo abesbatzek.

Martxoak 10: Zapatua

19:30 - Antzerkia, Santa Anan.

'Bakean dagoena bakean utzi'. Umorezko bakarriketak, generoa eta euskara gai hartuta, Mirari Martiarena eta Idoia Torregaraireren eskutik.

Martxoak 13: Asteazkena

19:30 - 'Zinegoak', zine aretoan.

Gay-lesbo-trans zinema eta arte eszenikoen nazioarteko jaialdiko film laburren emanaldia.

Martxoak 26: Asteartea

18:30 - Hitzaldia, udaletxeko pleno aretoan.

'Neextractivismo y patriarcado colonial: una mirada desde el feminismo del sur'. Tania Cruzekin (Territorio y feminismo kolektiboa) solasaldia.



ikuspuntua

LAGUN LEKU elkarteak
bat egiten du martxoaren
8ko greba deialdiarekin

Lagun Lekuk bat egiten du martxoaren 8rako deituriko greba deialdiarekin. Horrela, emakumeok egiten ditugun zaintza eta etxeko lanak ikusarazi nahi ditugu, eta hauetan jasaten ditugun baldintzak salatu.

Hona hemen martxoaren 8rako antolatutako dugun egitaraua:

- Emakume guztion greba.
 - Amantalak jarri balkoietan.
 - Besoko morea jarri martxoaren 8an.
 - Kontsumo greba.
 - Olakuako ahateen parkean elkarretaratzea eguerdiko 12etan.
- Bertan biolentzia matxistagatik erailak izan diren emakume eta haur guztiak oroitaraziko ditugu, eta haien omenezko ikur bat jarriko dugu.
- Sinadurak biltzeko liburu bat jarriko dugu eta, ondoren, bertan bildutakoa erakundeei bidaliko diegu, eta egoera honekin amaitzeko bitartekoak jar ditzaten eskatuko.
 - Ekitaldia amaitu ondoren mokadutxoa Lagun Leku elkartearen.
 - Bazkaria Olakua tabernan.
 - Martxoaren 8aren harira deitzen diren ekitaldi guztietan parte hartu, eta arratsaldeko 19:00etan udaletxe parean egingo den elkarretaratzera bildu.
 - Gizonezkoen haien paperaz, eta berdintasun eta justiziaren bidean haien ekarpena egitera animatzen ditugu.
- Gora Greba Feminista!



Indarkeria matxistaren detekzio, arreta eta erantzun instituzionala hobetzeko protokoloak onartu ditu udalak

Udalbatzak, aho batez, hiru protokolo onartu ditu indarkeria matxistaren detekzioa, biktimekiko arreta-zerbitzua eta erantzun publiko-instituzionala hobetzeko helburuarekin.

Bi urteko lanaren emaitza dira dokumentuak. 2016an Oñatiko indarkeria matxistaren gaineko diagnostikoa egin zenean, era honetako tresnen beharra jaso zen, besteak beste. Eta hala, genero indarkeria eta emakumeen ahalduz gain espezializatutako Sortzen S.L. aholkularitzaren gidaritzapean, eta arlo horretan inplikaturako erakundeekin elkarlanean osatu dira hiru protokoloak.

Helburua da udal mailako zerbitzuen (Berdintasun saila, Gizarte Zerbitzuak eta Udaltzaingoa) eta erakunde ezberdinen (Ertzaintza, Osakidetza) arteko elkarlana eta koordinazioa hobetzea, indarkeria matxista kasuen aurrean nola jokatu behar den garbi edukitzeko eta ahalik eta arreta egokiena eskaini ahal izateko biktimari.

FORMAZIOA ETA KOORDINAZIO MAHAIAK

Otsailaren 28ko osoko bilkuran onartu zituen udalbatzak aipatutako hiru protokoloak, eta orain Ertzaintzaren eta Osakidetzaren gorengo organoek onartu beharko dituzte, indarrean sar daitezten.

Bien bitartean udalak formazio eta informazio saioak egingo ditu Sortzen aholkularitzaren bitartez, indarkeriaren biktima diren emakumeen artean eta indarkeria matxistaren detekzioan garrantzitsutzat jo diren agenteekin (osasun zentroa, udaltzaingoa, gizarte zerbitzuak, ikastetxeak, hezkuntza ez formaleko hezitzaileak...) protokoloen berri emateko. Ondoren, koordinazio mahaiak osatuko dira, bata protokoloen jarraipena eta ebaluazioa egiteko, eta bestea, profesionala, indarkeria kasuen aurrean bilduko dena.

ARANBURU ALTZARIAK

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

ESTILO
GUZTIETAKO
ALTZARIAK

LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK

Aran
Hernández

Zure ETXEA eguneratu gurenoko inbertsio
bat erabiliz bere salmenta edota alokairua ematzeko

626 114 382

aranhernandez@aranhernandez.com



» IRATI GARAI ETA JONE ARRAZOLA

“Emakume askorentzako, arnagune eta babesgune izan ziren komertzio txikiak”

Komertzio txikiaren sektorea sustengatu duten emakumeen lana eta bizimodua aztertu dute Garaik eta Arrazolak, udalak emandako Selma Huxley bekari esker



Oñatiko emakumeek historian zehar herriari egindako ekarpena aitortzeko helburuarekin, *Selma Huxley Barkham* ikerlariaren izena daraman beka sortu zuen udalak iaz, eta laster argitaratuko du lehen ikerketa lana. ‘Oñatiko emakumeak errekaduta: XX. mendeko etnografia feminista’ du izenburua, eta herriko bizitzan hain garrantzitsuak izan diren komertzio txikietan emakumeek jokatu duten rola aztertu dute Jone Arrazolak eta Irati Garaik.

Komertzio txikiak eta emakumeak. Zergatik aukeratu duzue gai hori? Zein helburuarekin?

Gaur egun gainbeheran dagoen sektorea izan arren, XX. gizaldian zehar komertzio txikiak berebiziko garrantzia izan dute gure herriko bizitzan, eta emakumeak izan dira, nagusiki, sektorea sostengatu dutenak. Oso feminizatuta egon da sektorea, eta horren atzean dauden arrazoiak eta emakume horien bizimodua aztertu nahi izan dugu, eta aitoren bat egin, bide batez.

XX. mendean zehar emakumeen bizimodua nolakoa zen ere jaso duzue sarrerakoan.

Beharrezkoa ikusten genuen gure lana testuinguruan kokatzeko eta hobeto ulertzeko. Gaur egun sinestezina iruditzen bazaigu ere, orain dela berrogei urtera arte oso bestelako zen egoera, bereziki emakumeentzat. Ezin zuten kontu korronterik eduki, ezkonutakoan lana utzi behar zuten, ‘Servicio Social’ delakoa egin behar izaten zuten... Ezkondu aurretik etxetik kanpora lana egiten bazuten, dirua aitarentzat izaten zen eta, gainera, etxeko lanez arduratu behar zuten. Lanaldi bikoitza. Emakumeek ez zuten ez baliabiderik ez denborarik proiektu pertsonal bat garatzeko. Beraien betebeharrak nagusia etxekoandre ona izatea zen. Ez zegoen ondo ikusia emakumeek etxetik kanpora lana egitea, justifikazioaren bat ez bazegoen.

Merkataritza salbuespen bat zela esan daiteke?

Bai. Komertzio txiki gehienak familia negozioak izaten ziren; etxearen luzapena, kasu askotan. Eta hor bai enplegatu ziren emakumeak, baina beraien betebeharrak nagusia (etxea eta etxeak zaintzea) ahaztu barik. Gainera, ez zuten soldatarik jasotzen, eta horregatik ziren, neurri batean, errentagarriak eta bideragarriak komertzio txiki asko.

Denda txikiak orduko emakumeen sare sozialak zirela diozue.

Bai, duda barik. Errekadutara joatea zen emakumeek sozializatzeko zuten aukera bakanetako bat. Komertzioak izan dira topagune, izan dira arnagune eta babesgune emakume askorentzako. Konfiantzako guneak ziren harremanak egiteko, herriko kontuez informatzeko, elkarri entzuteko, elkarri laguntzeko... eta etxeko isolamendua ekiditeko.

Konfiantza giro horri esker familia askok aurrera egin ahal izan zuten estualdi ekonomikoetan.

Bai. Ohikoa izaten zen dendariak

‘apuntea’ egin eta zorretan edo konfiantzan ematea zailtasun ekonomikoak zituzten bezeroei. Eta gehienetan emakumeak izaten ziren aurpegia ematen zutenak fabore eske.

Bestalde, azpimarratzekoa da dendariak baserriarekin zuten hartu-eman zuzena. Truke bidezko salerosketa egiteaz gain, dendariak bitartekari lana egiten zuten nekazarien produktuak saltzeko, komisiorik jaso barik gehienetan, eta horrek hauspotu egin zuen lehen sektorea.

Oharra: Apirileko Kontzejupetik-ekin batera, lanaren laburpena argitaratuko da, eta maiatzean erakusketa bat jarriko da Casa Egaña dendan (Bakardadeko Ama), antxiñako argazki eta objetuekin, eta lehengo dendariekin egindako elkarrizketekin.

Denda txikietan emakumezkoen artean zegoen konfiantza giroa oso lagungarria izan zen familia askorentzat estualdi ekonomikoetan aurrera irten ahal izateko

ZURICH

M^o del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

HARALD LINDER

ETXEETAN ERA GUZTITAKO KONPONKETAK
PERSIANAK, LERMOAK, LUR FLOTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...



DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEA

SUKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GEHIAGO

OLAKUA 12 B 4 ezk. - 20560 ONATI - GIPUZKOA

695 78 91 04 - 943 04 47 77

Bagabiltz Jardunaldiak

ESKOLAKO BIDEA PROIEKTUA, ELKARLANEAN
HERRI HOBE BAT AMESTEN

» **Bagabiltz** proiektua aberasten jarraitzeko esperientzia eredarriak ezagutu eta egindako lana balorean jartzeko jardunaldiak izango dira martxoan.

Escolarako joan-etorriak modu jasangarri baten egitea baino gehiago dago eskolako bidea proiektuaren muinean. Herrigintza, elkarlana, partaidetza, hausnarketa eta eraldaketa. Azken bost urteetan Oñatin martxan dagoen egitasmo honek oraingoan beste esperientzia batzuk ezagutzeko aukera eskainiko du, besteengandik ikasi eta baita bertako esperientziatik ateratako ikaspenak partekatze ere.

Saioak Udaletxeko Areto Nagusian izango dira, 18:00etatik aurrera. Euskarazko hitzaldietan itzulpen zerbitzua egongo da.



5 urte ELKARLANEAN

Badira 5 urte Oñatin **Eskolako Bidea** proiektua garatzen hasi zenetik. Udalak sustatutako egitasmo honetan Oñatiko Lehen Hezkuntzako ikastetxeek parte hartzen dute. Elkarlanean egindako bide honetan, proiektua aberasten jarraitzeko unea heldu da. Horregatik, orain arte egindako lana balorean jartzeko eta beste hiri eta herrialdeetako esperientzia eredarriak ezagutzeko antolatu dira jardunaldiak.

Bagabiltz, Oñatiko eskolako bidea, partaidetza komunitarioko proiektu bat da, eta hezkuntza komunitateekin elkarlana du oinarritzat. Eskoletatik egindako hausnarketak herritar guztientzat onuragarriak dira. Helburua, herri-eredua birpentsatzea eta hurrek herrian parte hartzea.

Orain arte umeengan pentsatuta landu dira hainbat kontzeptu: kalitatezko espazio publikoa; jasangarritasun eta mugikortasun aktiboa; bide-segurtasuna; umeen autonomia; eta jolas aske eta espontaneorako eskubidea ingurune seguru eta osasungarrian. Lanketa hori batez ere umei begira egin da, baina hausnarketa baliagarria da gizarte osorako. Izan ere, elkarrekintza soziala bultzatzen duten hiriguneek bakardadeari eta isolamenduari aurre egiten laguntzen dute; mugikortasun aktiboa ohitura bilakatzen bada, pertsona guztien osasuna hobetuko du; kotxeak gutxiago erabilia kutsadura murrizten da eta guztiontzako aire garbiago bat izango dugu; eta haurren autonomia bultzatzen duen hiri-eredua pertsona helduentzat ere bada onuragarria.

JARDUNALDIAK / udaletxeko areto nagusian, 18:00

● MARTXOAK 12, MARTITZENA

Haurren hiria. Zergatik eraldatu gure herriak haurren pentsatuta?



Lorea Agirre Dorronsoro, Jakineko zuzendaria, kazetaria eta antropologoa. Euskararen, feminismoaren eta euskal kulturaren inguruko ikerlaria, Oinherri, herri hezitzaileen sustapenerako talde eragileko kidea. Umeen parte hartzeari buruz eta ikasketa-komunitateei buruz idatzi du eta Haurren Hiria liburuaren euskarazko edizioaren hitzaurrea idatzi du.

Hautzaroa eta Mugikortasuna Gipuzkoan. Mugikortasun jasangarri, aktibo, seguru eta autonomoaren alde 14 urte lanean. Ikasitako irakaspenak.



Isabel Prieto De Blas, geografoa, mugikortasunean aditua eta hezkuntzan eskarmentu handiko teknikaria. 14 urte daramatza eskolako bidea proiektuak garatzen Euskadi mailan eta Gipuzkoan zehazki Tolosa, Errenteria, Oiartzun, Hernani eta Donostian. Eusko Jaurlaritzak argitaratutako "Eskola Bidea. Gida Teknikoa" gidaren autorea da.

● MARTXOAK 14, EGUENA

Eskolako bidea proiektuak Bartzelonako probintzian. Ikasitako irakaspenak.




Salvador Fuentes Bayo, Bartzelonako Diputazioan arkitekto teknikoa. Diputazioa eta probintziako Udalen arteko ekimenak koordinatzen ditu. Eskolako edo lanerako joan-etorriak oinez edo bizikletaz egitea sustatzen aditua. 20 urtetik gorako esperientzia du gai hauetan.

Bagabiltz egitasmoak Oñatin 5 urte. Haurren mugikortasuna aldatu, herria haurren ikuspuntutik eraldatzeko.



Bagabiltz Taldea. Oñatin Eskolako Bidea egitasmoa eta Mugikortasun Segurua bultzatzen duten arduradun eta teknikarien taldea.



Oñati, 9 bideotan

Ondarea, ingurumena, industria, kultura, kirola... arlo ezberdinetatik begiratuta Oñati nolakoa den erakusten duten bederatzibideo prestatu ditu udalak, 'Oñati alderik alde' izenburupean. Hiruzpalau minutuko ikus-entzunezkoak dira, irudi benetan ikusgarriekin. Arrasateko Dragoi Produkzioak etxeak ekoiztu ditu eta www.hurretik.eus webgunean daude ikusgai.

Izan ere, ondarearen transmisioa bermatzea helburu duen *Hurretik* egitasmoan erabiliko dira bideoak, baina baita turismoa sutatzeko ere, eta herriko edozein elkarte edo erakundek behar izanez gero ere, erabilgai egongo dira. Euskaraz sortu dituzte bideoak, baina gaztelera eta ingelesezko bertsiok ere prestatzen ari dira. Sare sozialen bidez zabalduko dituzte bideoak eta, tarteka, kultur etxeko zine emanaldien aurretik ere emango dituzte.

Lehoiak bidaiatzen jarraituko du

Burgosko Giza Ebo-luzioaren museoan eta Donostiako San Telmon egon ostean, hurrengo hilabeteetan (uztailaren erdira arte) Bilboko Arkeologia museoan egongo da ikusgai Arrikutzen aurkitutako lehoiaren hezurdura. Erakusketa osatuz, Bilboko museoak irteera antolatuko du Arrikutzeko kobara.



San Lorentzoko jolas parkea berrituko du udalak

Kautsozko zoru guztia berrituko dute. Egoera onean dauden egitura eta ziburuak mantendu egingo dira, eta bi elementu berri ipiniko dituzte: ohe elastikoa eta sokadun piramidea. Lanak martxoan zehar egingo dira. Aurrekontua, 29.000€ (+BEZ).



DIRULAGUNTZA DEIALDIAK

EUSKARA SAILA. Hiru dirulaguntza lerro daude. a) Errotuluak, irudi korporatiboa eta webgunea euskaratzeko; b) Euskara ikasteko; c) Aisialdiko begirale titulua lortzeko ikastaroa egiteko Oñatin. Informazio gehiago, udaleko Euskara zerbitzuan.

KULTURA SAILA. Bi dirulaguntza lerro daude: a) kultur proiektuak eta programak gauzatzeko (58.000€); b) Herriko irabazi asmorik gabeko taldeen sormen lanak (discoak, liburuak...) sustatzeko (12.000€). GAOn argitaratzen denetik 30 egun.

KIROL SAILA. Bi dirulaguntza lerro daude: a) Herriko kirol taldeek kirola sustatzeko antolatzen dituzten ekintzetarako; b) Ohiz kanpoko kirol jarduerak antolatzeko. GAOn argitaratu ondoren hilabete epea egongo da eskaerak aurkezteko.

ERDINTASUN SAILA. Gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren eremuan lan egiten duten elkarreentzako dirulaguntza deialdia egin du udalak. Eskabideak aurkezteko azken eguna apirilaren 30a izango da.

GARAPENAREN ALDEKO DIRULAGUNTZAK. Hiru atal bereizten dira: a) Garapen bidean dauden herietan lankidetzak proiektuak (110.000€); Sentsibilizazio mailako ekintzak (3.000€); Larrialdiak (12.000€). Lankidetzak proiektuetarako eskaerak aurkezteko 30 eguneko epea egongo da, deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik. Sentsibilizazio arloko ekintzetarako dirulaguntzak uda arte eskatu ahal izango dira, eta larrialdietarako urte osoan zehar.

OÑATIN ELKARREKIN EKIN Gauzatu zure negozio ideia 6 saiotan

Ekintzailetasuna sustatzeko helburuarekin Udalak eta Enpresagintza fakultateak antolatzen duten 'Oñatin Elkarrekin Ekin' programaren barruan, negozio ideiak garatzeko tailerra antolatu dute. Sei saio izango dira (martxoak 27, apirilak 3 eta 10, eta maiatzak 2, 8 eta 15) Enpresagintza fakultatean (14:00-17:00). Negozio ideia bat gauzatu, beste negozioetatik desberdinu edota enpresa barruan proiektu edo erronka berriei ekiteko gogoz dauden herritar gztuei dago zuzenduta. Informazio gehiago eta izen-ematea, udaleko Sozioekonomia departamentuan (Bidebarrieta 12 / 943003198)

Parkour gunea egokituko du udalak Ibarren



Ibarrenko gunean, skate gunearen segidan eta Enpresagintza fakultatearen aurrealdean, parkour gunea egokituko du udalak. Barradun piramide moduko bat eta tamaina ezberdineko kubo nahiz prismak jarriko dira bertan. Ping-pong eta xake mahai bana ere bai. Herriko gazte parkour-zaleek parte hartu dute gunearen diseinuan. Maiatzean egingo dira lanak. Aurrekontua, 47.000 €.

Gipuzkoako lehen askalafidoa aurkitu dute Oñatin

Aurkikuntza entomologiko interesgarri baten berri izan dugu Iker Novoa, Oñatiko Naturzaliak eta Zerinthya elkarteetako kide den ikertzaile oñatiarraren eskutik, izan ere, Oñatin aurkitu baitute Gipuzkoan erregistratu gabe zegoen askalafidoen familiako intsektu bat.

Ondoko argazkian ikusten den moduan, tximeleten eta libelula edo burrunzien nahasketa diruditen intsektu hegalaria dira askalafidoak. Hegalari trebeak dira, nahiko handiak, eta beste intsektu batzuk jaten dituzte.

Iberiar penintsulan hamar askalafido espezie ezagutzen dira, eta horietako bat, *Libelloides longicornis* agertzen da Euskadiko Autonomia Erkidegoan. Baina, orain arte Bizkaian eta Araban bakarrik zegoen egiaztatuta bere presentzia, eta hauxe da Gipuzkoan ikusi den aurrenekoa.

lazko uztailean, tximeletak aztertzen ari zirela, ikusi zuten Kortakogain inguruan askalafido bikotea; eme bat eta ar bat. Adituek uste dute litekeena dela espezie hau Gipuzkoako gune gehiagotan ere egotea, eta animatu egiten dituzte herritarrak mota honetako edo beste espezie batzuetako askalafidoak bilatzera, espezie hauen inguruko ezagutza hobetzeko.



Iker Novoa, Egoitz Alkorta eta Beñat Lardizabal naturzaleek aurkitu zuten askalafidoa Kortakogain inguruan

Zaporeak taldea Grezian egiten ari den lana ezagutzera emateko erakusketa eta hitzaldia

► Martxoaren 25etik 29ra kultur etxean

Hotz-Oñati taldeak antolatuta, Donostiako Zaporeak taldea Grezian errefuxiatuen alde egiten ari den lana ezagutzera emateko erakusketa eta hitzaldi bana antolatu ditu.

Martxoaren 25etik 29ra egongo da ikusgai erakusketa kultur etxean (18:00-20:00). Argazki eta bideo bidez erakutsiko dute Chios, Atenas eta Lesbos-en egiten duten lana. 2016ko martxoaz geroztik milioi bat otordu baino gehiago prestatu dituzte errefuxiatuentzat, eta 500dik gora boluntarioren laguntza jaso dute.

Martxoaren 29an (18:30) hitzaldia emango dute Oraitz Garciak eta Grezian egon berri den Xabi Gezalaga oñatiarrak.



Egunero 1.300 otordu kozinatzen dituzte Lesboseko sukaldean

Hotz-Oñati taldearen zozketa bereziak

Ulmak egindako ekarpenari esker hainbat otar osatu ditu Hotz-Oñati taldeak, eta hilero hiru zozkatzen ditu. Hotz-Oñatiren lokalean (Kalebarria 45) ikus daitezke otarrak, eta bertan eros daitezke txartelak (1€), edo bestela, hilero bigarren zapatuan plazan jartzen duten mahaian. Batutako dirua errefuxiatuei laguntzeko da.


TABERNA • JATETXEA
Bidebarrieta 6
Tel.: 943 71 62 96
20560 OÑATI

FAGOR
INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA



Gure beharra baduzu,
ondo-ondoan gaituzu.
Arrasaten.

Hain ondo zaindu nahi
zaitugunez, Arrasaten bertan
ere artatuko zaitu Zuatzu
klinikako espezialista-taldeak,
20 urtetik gorako esperientzia
duenak.

Ginekologia eta obstetrizia.
Jaio aurreko diagnostikoa.
Bularretako patologia.
Laguntza bidezko ugalketa.

Nafarroa Etorbidea, 4 (bajo)
20500 Mondragón
943 792 018



www.clinicazuatzu.com

BNI Aukera Debagoienak Oñatin egingo du lan bilera martxoaren 15ean

► Herriko enpresa guztiak daude gonbidatuta BNI plataformaren funtzionamendua bertatik bertara ezagutzera ► Erreferentziak partekatuz, negozio aukera berriak sortzea helburu duen enpresa sarea da BNI.

BNI (*Business Network International*) negozioetarako nazioarteko sare bat da, izenak berak dioen moduan. Bertan dauden enpresen artean erreferentziak elkartrukatzuz, kontaktu komertzialak eta, azken batean, negozio bolumena areagotzea da BNIren helburua.

Debagoiena eskualdean 2017ko irailean eratu zen **BNI Aukera** taldea eta gaur egun sektore ezberdinetako 30 bat enpresa biltzen ditu. Lehenengo urtean 921 erreferentzia sortu zituen taldeko kideen artean eta horrek 1.024.245 €-ko fakturazio edo negozio bolumena eragin zuen.

BNI Aukera taldeko kideak ostiralero elkartzen dira (07:00-09:00) Arrasateko Garaia Parke Teknologikoan. Astero sortzen diren erreferentziak baloratu eta elkarri laguntzeko aukera berriak jorrotzen dituzte. Formazio saioak ere egiten dituzte tarteka.

Goretti Madina eta Mikel Saiz oñatiarrak Debagoieneko BNI taldeko kide dira, eta oso positiboki baloratu dute orain arteko esperientzia. "Arlo komertziala ez dugu sekula landu izan, eta hemen egoteak kontaktu sare zabal bat sortzea ahalbidetu

digu. Gainera, sektore ezberdinetako enpresen dinamikak ezagutzea oso aberasgarria da, bai profesionalki eta baita pertsonalki ere" dio Madinak.

"Guretzat ere oso lagungarria izan da BNI n egotea" dio Saizek. "Duela bi urte hasiberriak ginen, ez geneukan kontaktu askorik, eta bat-batean 30 bat kontaktu dituzu, zuri laguntzeko prest daudenak. Bezeroak ez ezik, hornitzaileak ere eskura jartzen dizkizu BNI sareak eta hori ere oso interesgarria da".

BILERA OÑATIN

Martxoaren 15eko bilera Oñatin (Enpresagintza fakultatean, 9:00etan) egingo du BNI Aukera taldeak. "Herriko enpresa guztiei (industrialak, zerbitzuak, gremioak, komertzioak...) luzatuko diegu gonbidapena. BNI taldearen fun-

tzionamendua bertatik bertara ezagutzea da helburua" azaldu digu Madinak.

BNI Aukera eskualde mailako lantaldea da, baina nazioarte mailan hedatuta dagoen BNI plataforma barruan dago (8.000 lantalde ditu munduko 70 herrialdetan, 119 Espainian eta 12 Euskadin), eta mundu mailako sare hori oso lagungarria da nazioarte mailako merkatuetara jauzi egin nahi duten enpresentzat ere. ■

«Lehenengo urtean 921 erreferentzia sortu zituen BNI Aukera taldeak, eta 1.024.245 euroko negozio bolumena eragin zuen»

«BNI lantaldean egotea oso aberasgarria izaten ari da, bai profesionalki eta baita pertsonalki ere»



Goretti Madina (Madina Abokatuak) eta Mikel Saiz (Coinbroker) BNI Aukera Debagoiena taldeko kideak dira

caravanas



oñate

• **GALDARAGINTZA - CALDERERIA**
Otañui zuhaiztia, 25 • Tel.: 943 71 63 50

www.caravanasonate.com

• **BIZIKLETAK**
• **ERREMOLKEAK**
• **TXIRRINDULARITZARAKO OSAGARRIAK**
Otañui zuhaiztia, 25 • Tel.: 943 78 05 65
Atzeko kale, 32 (erakusketa)

Txapela jarriko du jokoan Andoni Goitiak

► **Oñatiko VIII. Bertsolari Txapelketa** jokatuko da martxoaren 23tik apirilaren 13ra ► **Hamasei** bertsolarik parte hartuko dute

Oñatiko bertso festa nagusia hastera doa. Txinparta Bertso Eskolak antolatuta, Oñatiko VIII. Bertsolari Txapelketa jokatuko da datozen asteetan. Andoni Goitia azken txapeldu-narekin hitz egin dugu.

Txapela defendatzeko prest?

Bai. Uste dut ezin zaiola uko egin txapelketari, norbera txapelduna denean. Aukera eman behar zaio jendeari txapeldunari irabazteko.

Zein helbururekin ekingo diozu?

Azkenengo txapelketan saio nahiko txukunak egin nituela uste dut. Finalean, bereziki, asko disfrutatu nuen. Beraz, helburua izango da orduko maila ematea, eta, ahal bada, hobe. Eta emaitza izango da dena delakoa. Besteek maila hobe ematen badute, pozik egongo naiz berdin berdin. Dena den, ni lehiakorra naiz, eta neure onena ematen saiatuko naiz.

Erantzukizun berezirik, txapelduna izanda?

Ez. Emaitza aldetik ez. Bertso eskolako kide gara guztiok, antzeko maila dugu, eta ez dut uste inor oso gainetik dagoenik. Norberak

ondo egitea, besteak ere ondo aritzea, eta denon artean saio politak eskaini ahal izatea. Horixe nire nahia.

16 bertsolari izango zarete. Bada zerbait!

Bai, eta horrek dakar zortzi laguneko bi saio egitea. Ea nola ateratzen den, ez baita samurra; jende askoa da, eta luzatzeko arriskua dago. Baina antolatzaileak ari dira lanean, ariketa desberdinak prestatu eta saioak ahalik eta arinenak izan daitezen.

Bertsolariok zarete protagonistak, baina txapelketaren atzean lantalde zabala dago, ezta?

Bai, gai-jartzaileak, logistika arduradunak, aurkezleak... talde polita eta, batez ere, eraginkorra da oso. Bertso saioak hobeto edo okerrago irtengo dira, baina antolakuntza mailan berme osoa dugu dena ondo aterako dela. Lan bikaina egiten dute.

Aurreko txapelketetan giro berezia sortu izan da herri mailan. Bertsozaleek oso ondo erantzun dute.

Hori da helburua, azken batean. Txapelketak herritarren-gana iristeko bidea ematen du. Zerbait jokoan egoteak interesa pizten du, edozein delarik ere lehia. Eta gure txapelketan emaitza benetan esanguratsua ez izan arren, jendeak beste era batera bizi du, eta polita da.

Espero dezagun bertsolariok ez egotea oso lotuta, eta egiten dakiguna erakusteko gai izatea. Publikoak beti bezala erantzuten badu, emaitza bermatuta egongo da, txapela batak ala besteak eraman.



1. FINALAURREKOA

Eguna: Martxoak 23

Lekua: Antixena gaztetxea

Ordua: 17:30

Bertsolariak:

- Ander Lizarralde 'Pertz'
- Urko Egña
- Gorka Larrea 'Txapel'
- Maider Arregi
- Joseba Lasagabaster
- Beñat Alberdi
- Bittor Zubiagirre
- Xabi Pascual 'Paku'

2. FINALAURREKOA

Eguna: Martxoak 30

Lekua: Eltzia

Ordua: 17:30

Bertsolariak:

- Odei Irigoien
- Aitor Tatiegi
- Egoitz Aizpuru
- Andoni Goitia
- Joseba Igartua 'Urze'
- Urko Arregi
- Gontzal Belategi
- Aritz Irigoien

FINALA

Eguna: Apirilak 13

Lekua: Gaztelekua

Ordua: 18:00

Bertsolariak:

Sei bertsolari ariko dira. Saio bakoitzeko irabazlea eta puntu gehien lortzen duten lau bertsolariak.

ORAIN ARTEKO

TXAPELDUNAK

1965 Rufino Alkorta

1968 Andres Kortabarria

1969 Andres Kortabarria

2007 Josu Igartua

2008 Joseba Lasagabaster

2012 Maider Arregi

2014 Andoni Goitia



ARRIZABALAGA
Aroztegia

Berezo Ind. 10
Tel. 943 78 14 64



PAKITA
Altzariak

Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21



SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

IRAZOLA

Okindegia

Ostiral, asteburu
eta jai egunetan
baserniko agia,
egurrezko labean egina



Larraña auzoa, 44 • Tel.: 943 78 25 97 • Mug.: 688 630 754

Lehen sorospen erizainak diren Txantxiku Ikastolako guraso batzuen eta gorputz heziketako irakasleen ekimenez, TXANTXIKUAK 2ZIRIK proiektua jarri dute abian, lehen sorospen eta bihotz-birikien suspertze maniobren inguruko formazioa ikasle guztiei eta, poliki poliki, hezkuntza komunitate osoari (langileak eta gurasoak) eskaintzeko asmoz.

'2 ESKUREKIN BIZITZA BAT SALBA DEZAKEGU'. Horixe da 'Txantxikuak 2zirik' proiektuaren filosofia eta helburua laburbiltzen dituen esaldia. Lehen sorospenetan oinarriko ezagutza izateak bizitza bat salba dezake, eta biktimaren bizi-kalitatea hobetu. Baina, jakina, horretarako ezinbestekoa da formazioa; ezinbestekoa da herritarrak trebatzea eta ahalduntzea, norbait bihotza gelditzen bazaio edo ezarria trabatuta geratzen, nola jokatu behar dugun jakiteko.

Gaur egun, esaterako, gero eta leku publiko gehiagotan daude desfibriladoreak, edozein herritarrek erabiltzeko moduan, baina ez badakigu nola erabiltzen diren, nekez lagunduko digute. Horregatik da hain garrantzitsua oinarriko formazioa behintzat edukitzea suspertze maniobretan. Formazio hori zenbat eta hedatuago egon, orduan eta bizi-aukera gehiago. Eta hori da, hain zuzen, ikastolan abian jarri duten 'Txantxikuak 2zirik' proiektuaren helburua.

IKASLE DENAK TREBATU

Ikastolako zuzendaritza taldeak begi onez ikusi du guraso taldearen ekimena eta aurten bertan hasi dira, 'Txantxikuak 2zirik' proiektua implementatzen. Aurrena ikasleekin. Hala, LH-3tik Batxi-1erainoko ikasle guztiek jaso dute Lehen Sorospen eta Bizi Euskarri Maniobren inguruko formazioa: nola jokatu bihotz-gelditze bat gertatzen



'TXANTXIKUAK 2ZIRIK'

Ikasle guztiak Lehen Sorospen eta Bizi Euskarri Maniobretan trebatzera zuzendutako proiektua jarri dute abian ikastolan



LH-3tik Batxi-1erainoko ikasle guztiek jaso dute aurten Lehen Sorospen eta Bizi Euskarri Maniobren inguruko formazioa. Urtero bi orduko saioak egingo dituzte ikasitakoa gogoratu eta osatzen joateko

denean; nola egin bihotz-birikak suspertzeko ariketak, nola erabili desfibriladorea, alboko segurtasun posizioaren garrantzia, nola egin *Heimlich* maniobrak ezarria trabatuta geratzen denean, zer egin odol jarioak, erredurak edo konbultsioak daudenean...

Bi ordu inguruko formazio saioak jaso dituzte, eta amaieran bihotz-birikak suspertzeko maniobren protokoloa eman zaie ikasleei, etxekoei azaldu eta ahalik

eta gehien zabaltzeko helburuarekin.

Datorren ikasturtetik aurrera, ikasleen ezagutze maila osatzen joango dira, adinaren arabera. LH3, LH5, DBH1 eta DBH3ko ikasleek guraso-erizain taldeak gidatutako formazio saioak jasoko dituzte, eta gainontzeko taldeek gorputz heziketako irakasleekin erreparatuko dute modu praktikoan. Hau da, urtero bi edo hiru orduko saioak egingo dira ikasleekin lehen sorospene-

nen inguruko kontzientzia eta kompetentziak garatzeko.

Baina 'Txantxikuak 2zirik' proiektua ez da ikasle-tara mugatuko. Asmoa da hezkuntza komunitate osora zabaltzea. Datozen urteetan ikastolako langile guztiei eta gurasoei zuzendutako formazio saioak antolatzeke asmoa dute, eta prest daude era honetako proiektu bat abian jarri nahi duten herriko beste elkarte eta erakundeekin elkarlanean aritzeko. ■

Karta berria

ITURRITXO JATETXEAn

Herriko ostalaritzan ia bi hamarkadako esperientzia duen **David Vernazak** gidatuta, ongi-etorri Iturritxo Jatetxearen ibilbide berrira!

- * Eguneko menua 11€
- * Gaueko menua 12€
- * Asteburuko menua 25€



80
lagunentzako
jangela

Asteazkenetik
larunbatera,

Plater konbinatuak
Errazioak
Pintxoak
...



Ospakizun handietarako
prestatutako jatetxea.

Bataioak, jaunartzeak...

Herrigunean eta
autorik hartu gabe!

Tuberna zerbitzua ere bai

ORDUTEGIA:

Astegunetan,
11:00-00:00

Asteburu eta joiegunetan,
12:00-2:00

ERRESERBAK:

Helbidea,
Atzeko Kale, 32 behea

Telefona,
943 71 60 78





Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorlanean izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g
20560 OÑATI
Tel.: 943 78 20 72
kontzejupetik@onati.eus



Oñatiko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

KONTZEJUPETIK

Argitaratzailea:

Oñatiko Udala

Zuzendaria:

Iñigo Arregi

Publizitatea:

Aratz Losada

Diseinua eta Maketazioa:

Aratz Losada

Kolaboratzaileak:

Jerardo Elortza eta Euskaltegia

Inprimategia:

Gertu

Tirada:

5.500 ale

Lege gordailua:

SS-357/91

Posta-e:

kontzejupetik@onati.eus

Publizitatea:

publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa
20560 Oñati (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 20 72

Antixena parkeko zuhaitzen mozketa dela eta

Amaia Arregi

Azkenengo astietan Antixenako parkeko zuhaitzak podau eta mozten dabitz. Gainera modu haundixian, ez da arramak bakarrik kentzeia. Emuten dau arbolak gaixorik dauzelako dabitzela itten, baina ez eukain gaixo itxurarik. Parke honetan dauzen arbolak oso zaharrak dia, eta egixa esanda pena haundixa emuten dau parkia oiñ hola ikustia.

Zein da arbolak mozteiaren arrazoia? Pentzau al da arbola honeik moztu ostian zer nolako kaltiak sortu leken inguruko paretetan? Seguruenik sustar horreik pareta honeik eusten lagunduko ebein. Ez xat normala pentzaitten arbolak halako samurtasunakin enborretik mozteia egokixa danik.

Herrixan gai honeittan lana itten daueiñ pertsonak dauz, galdetu al xate zerbait? Natur eskolakuak ados al dauz?

Herri erdixan dauen antxiñako parke bateri halako "arreglua" ittia geixei pentsaitten xat.

Eskertuko neke gai honen inguruan argibiden bat emutia udaletxiak.

'Plan Renove' delakoa

Enrike Gaztañaga Azpiazu

Nere kotxeak, uztaillean, 20 urte egin behar ditu, eta ez badu gezurrik esaten, hasieran bezela eta fabrikanteak esaten duena erretzen du, 5 litro inguru 100 Km tan. ITVan, urteak eta kilometroak ikusita, 360.000tik gora, muturra okertzen dute eta juxtu xamar dabilela esaten didate, baina orrian, ez dute kutsatzen duenaren argibide zehatzik ematen.

Honela bada, telebistan, gure "ekologista" konzientzia ikutzen dute, kotxe zaharra kendu eta prestazio hobek, eta gutxiago zikintzen duen kotxe berri dizdiratsu bat erosteko, mundu garbiago baten alde.

Eskuari pegatuta eramaten degun tresna horien obszoleszentzia programatuaren ondorioz, miloika telefono zahar horiek bezela, nere kotxe zaharra, baita ere, desguaze batean bukatzea nahi dute.

Beste alde batetik, Obispo Otaduy kalean, ezki zuhaitz erraldoi eta osasuntsu bat bota dute, horri ere, izenburuko garaia heldu zaiola norbaiter bururatu zaiolako... Gero eta bururik gabeko zuhaitz gehiago ikusten dira; ez ahal gara burugabeak gu izango? Kotxe zaharrik ez, zuhaitz zaharrik ez... ez ote ditugu hurrengoan gizaki nagusiak, zahar bezela hartuko eta beraientzako ere "plan renove" delakoa proposatuko.

Noiz arte?

Iosu Lizarralde eta Julen Aranburu - Oñatiko Sortu

Batzuk, aspaldi hasiak dira bake eta bizikidetzaren egoki baterako urratsak ematen. Beste batzuk aldiz, mendeku gosea dela eta, tematuta jarraitzen dute Euskal Herrian bake eta bizikidetzaren hori apurtu eta saboteatzen. Horren adibide dira, Euskal Preso eta Iheslarien kolektiboari eta haien familiei ezarritako baldintza eta neurri ulergaitz eta onartezinak.

Esate baterako, Oñatin, lau preso ditugu eta beraien zein familiartekoen eskubideak une oro urratzen ditu Espainiako gobernua. Xabier Ugarte etxetik 440Km-tara dago, Xabier Usandizaga 810Km-tara,

Joseba Arregi 720Km-tara eta Angel Telleria 520Km-tara. Lehenengo hirurak, baldintzapeko askatasunean egon beharko lukete, izan ere, kondanaren hiru laurdenak beteak dituzte. Horretaz gain, Euskal Herriratuak izan daitezten eta graduz aldatzeko hainbat eskaera egin dituzte, saiakera guztietan erantzuna ezezkoa izan delarik. Euskal Preso Politikoen %95-96a salbuespeneko erregimen honetan dago (lehen graduan). Aldiz, Espainiako estatuan dauden 61.000 presoetatik %1a bakarrik dago lehen graduan sailkatuta.


Gainera, Joseba Arregik baldintzapeko askatasunean egon beharko luke 70 urte baino gehiago baititu. Martxoaren 27an 73 urte beteko ditu (EPPK-ko bigarren preso nagusia) eta handik bi egunera, 27 urte beteko dira Bidarten atxilotu zutenetik. Hori guztia gutxi balitz, Estrasburgok hartutako erabakiaren ondorioz, Frantzia betetako zigorraren zatia ez diote kontuan hartzen. Berdina gertatzen zaio Alberto Plazaola Oñatiarrari ere eta ondorioz, bere sorterritik kanpo bizi da, herriko iheslari batzuk bezalaxe.

Guzti honetaz kontzientzia har dezagun eta denok hobeto informatuta egoteko asmoarekin, **apirilaren 2an, asteartean, Kultur Etxean** eskainiko den hitzaldira etortzera animatzen zaituztegu. Herriko presoan abokatuaren eta Sareko kide baten eskutik, beraien espetxeko egoera zein den eta egoera juridikoa zehatz-mehatz nolakoa den azalduko digute.

Aski da! Bada garaia gure herriko seme diren Xabier, Xabin, Joseba, Anjel, Alberto eta beste guztiak gure herriko kale, auzo



Gazteluaitz, ederra bezain ezezaguna

 Argakia Sindika goitik aterata dago. Gazteluaitzeko tontor elurtua eta Itturigorri inguruko basoak ikusten dira bertan. Behelainoa sartu eta irten egiten zen uneoro, estampa ikusgarriak utziz. Argazkilariak oso gustoko duen tontorra da, daukan forma kurioso eta batez ere, jende gutxi ibiltzen den lekua delako.



AMAIA ARZAMENDI

eta inguruetan aske eta libre ikusteko. Besarkada bat guztiei eta beraien familiakoei!

215€ gizonezkoen gaixotasunak ikertzeko

Jon Lopez, Iñaki Guridi eta Aratz Losada - Movember Oñati



Udal Euskaltegiko matrikula-zozketaren irabazlea

Euskaltegiko ikasleen artean ikasturteko matrikularen kostuari dagokion diru-saria zozketatu ohi du urtero udalak. Aurten C2 mailako Amaia Sologaistoa Agirre izan da saritua. Argazkian dago bera saria jasotzen (287,60€) udal euskaltegiko zuzendari Roberto Altunaren eskutik.

Movember Oñati taldeak 215€ bideratu ditu gizonezkoen gaixotasunak ikertzen diharduen fundaziora. Eskerrik asko laguntza eman zenuten guztioi!



Presoen aldeko saskiaren irabazlea

Herriko presoen alde Gabonetan antolatutako zozketan 0005 zenbakia atera zen saritua, eta 1656 ordezko bezala. Hilabeteko epea igaro ostean lehenengo zenbakiaren jabea agertu ezenez, Markos Corres atxabaltarrak aurkeztu du ordezko zenbakia, eta berak jaso du saria, Gabon saski zoragarria, ondoko argazkian ikusten den moduan.



Etxe-Aundi
Hotela - Julateka **
Tel. 943 78 19 56
www.etxeaundi.com



Gure ekintzen berri emango duen atala...

>> UDALEKU IREKIAK

Euskaraz eta gozamenetik disfrutatzeko aukera izango dugu udalekuetan. Beti bezala ekintza ezberdinak egingo ditugu haurren nahi eta gogoetara egokituz, hala nola, uraren eguna, eskulanak, jolasak, ibilaldiak, kanpaldia etab. Oñatiko Gaztelekua izango da gure topalekua, eta 4 urtetik 12 urteko haurrak parte hartu ahal izango dute. Iaz bezala, ordainketa kontu ezberdinetan eta interenet bidez egin ahal izango da. Hona hemen aurtengo udalekuetako beharrezkoa informazio guztia:

NOIZ: Uztailaren 1etik 26ra. **ORDUTEGIA:** 10.00-13.00 **ADINA:** 2007-2015an jaiotakoak (biak barne). **TOKIA:** Gaztelekuan. **MATRIKULA:** 71,05€, bigarrena 60,90€, hirugarrena 50,75€, laugarrenetik aurrera doan. **HAURREN IZENA EMATEKO EPEA:** Martxoaren 11tik 22ra (biak barne). **ZAINZA ZERBITZUA:** 8.15-10.00 bitartean (50€). **IZENA EMATEKO MODUA:** Behin ordainketa eginda, ordainketaren ziurtagiria eta izen emate orria datu guztiak beteta, Udaletxera (9.00-14.00) edota Txaloka ludotekara (16.45-19.45) eraman beharko da.

UDALEKU IREKIEN BEGIRALEEN KONTRATAZIOA

IZENA EMATEKO EPEA: Martxoaren 11tik 22ra. **HEZITZAILEEN FORMAZIO SAIOAK:** Maiatzaren 12 eta 23an. Derrigorra izango da formazio saioetara etortzea. **BALDINTZAK ETA INFORMAZIO GEHIAGO:** Ludotekan, Gaztelekuan, Oñatiko Udalean edo www.onati.eus.

>> ARTE UDALEKUAK

Aurten, zortzigarren aldiz, Arte udalekuak antolatuko ditu Haur eta Gazteria Sailak. Arte Udalekuetan gaztetxoek marrazkigintzan, eskulturan, margogintzan eta abar aritzeko aukera izango dute.

NOIZ: Uztailaren 1etik 26ra. **ORDUTEGIA:** 10.00-13.00, **ADINA:** LH3tik hasita DBH4 arte, biak barne. **TOKIA:** Bidebarrietako eskulanen gelan. **MATRIKULA:** Lehenengo haurra 70,05€, bigarrena 60,90€, hirugarrena 50,75€, laugarrenetik aurrera doan. **KOPURUA:** Plaza mugatuak, gehienez 15 gazte. **IZENA EMATEKO EPEA:** Martxoaren 12tik 22ra, biak barne. **IZENA EMATEKO MODUA:** Gaztelekuan eman beharko da izena. Onartutakoei abisatuko zaie dirua non eta noiz sartu behar duten jakinarazteko.

ARTE UDALEKUEEN BEGIRALEEN KONTRATAZIOA

IZENA EMATEKO EPEA: Martxoaren 11tik 22ra. **BALDINTZAK ETA INFORMAZIO GEHIAGO:** Gaztelekuan, Oñatiko Udalean edo www.onati.eus.

>> GAZTE ELKARTE ETA SORMEN DIRULAGUNTZAK

Oñatiko Udaleko Haur eta Gazteria sailak, aurten ere, gazte elkarteak eta sormena bultzatzea helburu duten diru-laguntzak jarriko ditu martxan martxoan. Diru-laguntzak jarraian zerrendatzen diren ataletan oinarrituko dira: Urteko programaketa – Elkartearen sustapena, Kultur sormena eta hedapena (diskak, audio-bisualak, ...), ez-ohiko jarduerak. Martxoaren erdialdetik aurrera egongo da eskatzea. Informazio gehiago Gaztelekuan, Oñatiko Udalean edo www.onati.eus.

>> GAZTE EMANTZIPAZIORAKO DIRULAGUNTZAK

Oñatiko Udaleko Haur eta Gazteria Sailak alokairuko etxebizitza eskuratzea sustatzea helburu duten diru-laguntzak martxan jarriko ditu aurten ere. Martxoaren erdikaldetik aurrera egongo da eskatzea. Informazio gehiago Gaztelekuan, Oñatiko Udalean edo www.onati.eus.

AGENDA: 19.03.8 GREBA EGUNA. ZERBITZUA ITXITA EGONGO DA | 19.03.9 Egurra ta Kitto + Cronopios taldeen kontzertua gaztelekuan (19:30); sarrera aurrez 6,5€, takilan 8€. | 19.03.17 Mr. Sipp taldearen kontzertua gaztelekuan (12:30). | 19.03.22 Gaileta dekorazio txapelketa kuboan (17:00). | 19.03.22 Txipistin zerbitzukoekin batera, ekintza bateratua: sukaldaritza txapelketa kuboan (17:00). | 19.03.30 ATOM RHUMBA + VULK + ELENA SETIEN taldeen kontzertua gaztelekuan; sarrera aurrez 10,5€. | 19.03.31 Mendi irteera: Urbixa.

On Raimundoren ikasgaia

Kolaborazioa / ROBERTO ALTUNA
(Udal Euskaltegiko zuzendaria)



Bazen behin, orain gogoan ez dudan herri batean, lanbidea ikasteko tailertxo bat. Bertako maisua On Raimundo zen. Egun batean ikasleei proba bat jartzea pentsatu zuen eta horretarako lau bizikleta desmuntatu zituen: triziklo bat, mendiko bat, errepideko bat eta elektriko bat. Denen piezak askatu ondoren, pilan jarri zituen lurrian: gurpilak, manilarrak, jarlekuak, kateak, torlojuak, kableak, balaztak, guardabarrosak, balazten takoak, gurpil-azalak, bateria eta abar.

Eta, ondoren, ikasle trebe bat aukeratu eta esan zion lurrian zeuden piezak hartu eta, haiek ondo aukeratuz, ibilgailua muntatzeko.

—Hala, etorri, Patxi! Hik muntatu behar duk ibilgailu hau.

—Ai, maisu, lan ederra jarri didazu, saltsa-maltsa honetan ez dut ezer ikusten, ez ibilgailurik, ez antzekorik ere!

—Trankil, arretaz begiratu eta joango haiz pieza desberdinak antzematen.

Patxi hasi zen lanean, baina ez zekien nondik hasi. Ikusten zituen bederatzita gurpil eta esaten zuen bere artean: “Hau duk, hau, ibilgailu xelebrea: bederatzita gurpilduna al duk?” Eta jarlekuak ere lau zirela ohartu zen. Orduan, pentsatu zuen: “Lau lagunentzako ibilgailua duk hau”. Manilarrak ere lau. Eta, orduan, bere artean: “Ibilgailu honek zenbat txofer behar ditik, ba?”

Horretan zebilela, galdetu zion On Raimundori ea zer motatako ibilgailua zen hura, ez baitzion antzik ematen. Hark erantzun zion ibilgailu askotarikoa zela, egoera zein adin guztietako jendearentzat balio zuena: ume txikiak parkean ibiltzeko, mendira joateko, errepidean ibiltzeko, airosoago ibiltzeko, eta abarretarako.

—Baina zenbat ibilgailu dira?

—Bakarra, baina lau modelo dituena.

—A, banangoen ba! Eta zein da hoberena?

—Hoberena, zertarako? Umeek erabil dezaten gura baduk, modelo bat izango duk egokiagoa, mendirako gura baduk beste bat, airoso ibiltzeko beste bat, eta horrela.

—Nik unibertsala gurako nuke!

—Bai, baina unibertsal horrekin ezingo haiz joan mendira, muturrak hautsiko dituk eta!

—Baina ni ez naiz joaten mendira, gehienetan errepidean ibiltzen naiz-eta.

—Orduan, munta ezak hori bakarrik, eta errepidean ibil hadi!

Hala, gure Patxi piezak bereizten joan zen eta banan-banan muntatzen errepideko bizikleta osatu arte. Amaitu zuenean, hor izan zuen berak gura zuen bizikleta unibertsala, baina hura ez zeukan ume bati uzterik, harekin ez zeukan mendira joaterik, ezta pedalei eragin gabe ibiltzerik, unibertsala baitzen, eta ez espezializatua.

Zuk, irakurle, zein modelo beharko zenuke zeure beharretarako?



Bezeroen beharrei
erantzuteko prest!



GUALBI
AHOLKULARITZA

- ◆ Kontabilitate administratiboa
- ◆ Fiskalitatea
- ◆ Lan-arloa
- ◆ Kontu-ikuskaritza
- ◆ Merkataritza
- ◆ Abokatuak

Euskadi Etorbidea, 6

Tif.: 943 78 16 48

email: onati@gualbiasores.com

www.gualbiasores.com



Berdura PLAZIA

larunbatero (8:00-14:00)

HILE HONETAKO PRODUKTU AIPAGARRIAK



PAK-CHOI

Berezitasun bezala, azal-ore txinatarra kusi dugu Ortuzabalako postuan. Oso goxua omen da saltatuta jateko.

6,70€ KILOA



ESPINAKAK

Azken asteerako eguraldia lagun, itxura benetan ederra hartu dute Ortuzabalako espina hostoak.

4,70€ KILOA

Zenbat eta hurragokoa orduan eta gozoagoa

EÑAUT URIBESALGO ETA ASIER GARAI

ORTUZABALA ELKARTEA

Eñaut Uribesalgok eta Asier Garaik duela bi urte hartu zuten Oñatiko Ortuzabala Kontsumo Taldearen ardura, eta astero 45 barazki-otar banatzen dituzte taldeko bazkideen artean, modu ekologikoan landatutako barazki ederrez hornituak. Urtaro bakoitzaren amaieran bilera egiten dute kontsumo taldeko kideekin, otarrekin gustura ote dauden jakiteko eta hurrengo urtaroko landaketen planifikazioa egiteko. Gainera, tarteka, erosketa kolektiboak ere (olioa, lekaleak, sagarrak, kiwiak) egiten dizkiete inguruko nekazariei, baina betiere modu ekologikoan ekoiztutako produktuekin.

Oñatiko azokan ere larunbatero egoten dira Eñaut eta Asier, urte osoan. "Asteroko bezero finkoak ditugu eta gustura joaten gara. Gazteak ere gero eta gehiago etortzen dira; elikadurarekiko ardura gehiago dutenak, batez ere". Azoka sustatzeko udalaren ekimenak eta dirulaguntza ere eskertzen dute.



"Modu ekologikoan ekoiztutako barazkiak saltzen ditugu"

ANE MERTZERIA



- Josteko zerak
- Lentzeria
- Umeen jantziak

Kale Barria, 54 OÑATI

Cartonajes Arregui, S.A.



- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI



CROWDFUNDING KANPAINA, SORTZEN LAGUNTZEKO

Oñatiko azken laburmetray rallya irabazi zuen **Dwingi Dwingi** taldeak crowdfunding kanpaina jarri du abian 'Odolustek' proiektua aurrera ateratzeko

2018 Oñatiko laburmetray rallyan ikuslearen saria eta sari nagusia irabazi ostean, *Dwingi Dwingi* taldeak beste proiektu handiago batean murgiltzea erabaki du. Herriko arlo desberdinetako jendearekin elkarlanean 20 bat minutuko laburmetraia sortu, ekoiztu eta grabatzea da helburua; ahalik eta kalitate handieneko ikus-entzunezko bat sortzea, inolako irabazi asmorik gabe.

Laburmetraia egiteko izango dituzten gastu ekonomikoak aurre egiteko (grabazio materialen alokairua, soinu nahasketak, atrezzoak, etab.), *crowdfunding* kanpaina bat egitea erabaki dute.

Crowdfunding-a, proiektu bati ekonomikoki lagundu ahal izateko ekimena da. Kasu honetan 'Verkami' izeneko online plataforma kataluniarra baliatu dute, <http://vkm.is/odolustek> helbidean. Bertan aurkituko dugu proiektuari buruzko informazio zehatzagoa: taldearen ibilbidea, proiektuaren azalpena, grabaketa data, lortutako dirulaguntza zertara bideratuko duten, etab.

MARTXOAREN 26RA ARTE

Proiektua aurrera ateratzen lagundu nahi dutenek webgune horretan bertan egin ahal izango dituzte diru ekarpenak. Ematen den diru kopuruaren arabera, sari ezberdinak jasoko dituzte: laburmetraia ikusteko gonbidapenak, kamisetak, norbere izena laburmetraiko kredituetan agertzea.... eta beste hainbat sorpresa.

Crowdfunding kanpaina hau martxoaren

26an amaituko da. Taldeak garbi utzi nahi du hau ez dela inongo diru irabazirik lortzeko proiektu bat; batzen den dirua guztia beharrezko gastuetara bideratuko da, eta soberakinik bago, herriko beste ekimen batzuetan erabiliko litzateke.

Apirila-ekaina artean egin nahi dituzte grabaketak, eta dena ondo bidean, urrian aurkeztuko dute laburmetraia herriko aretoaren batean. Promozio bideoa ere eskegi dute sarean: <https://bit.ly/2TJIXD0>. Informazio gehiago: www.facebook.com/dwingi.dwingi.5

<http://vkm.is/odolustek>
webgunean egin daitezke
proiektuaren aldeko
diru ekarpenak



30 €-ko erosketak bonoak opari, udaberriari ongi etorria emateko

'Badator udaberrixa' izeneko kanpaina antolatu du TXANDA dendarien elkarrekin bezeroen fideltasuna saritzeko. Martxoaren 21etik 30era boleto edo txartelak banatuko dituzte Txandako 57 saltokietako batean erosketak egiten ditugun bakoitzeko, eta denda horretan bertan gastatzeko 30 €-ko erosketak bonuak irabazteko aukera izango dugu.

Hermansoloñaren batzar nagusia

Hermansoloña gobernu kanpoko erakundeak martxoaren 20an egingo du urteko batzar nagusia kultur etxeko zine aretoan (19:30). 2018an burututako proiektuen (Mali, Sahara, Ginea, Aljeria...) errefuxiatuen alde Hotz-Oñatirekin batera egingo dako lanen, eta 2019rako dituzten proiektuen berri emango da bertan.

GARBIKETA
ADMINISTRAZIOA
ETA KONPONKETAK

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarleen administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47
Oñati

PINTURAS
URBIA
MARGOAK
Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15

Euskadiko karateka onenak batuko dira Oñatin

► Aloña Mendiko Karate sailaren 25. urteurrena ospatzeko **Euskadiko Txapelketa** jokatu da Oñatin **martxoaren 16an**

Aloña Mendi karate sailak 25 urte betetzen ditu aurten. Urte batzuk lehenago hasita zegoen karatea Oñatin, baina Arrasateko taldearen babesean, eta 1994an eratu zen sail bezala Aloña Mendi kirol elkartearen baitan. Eta urteurren berezi hau behar bezala ospatzeko Euskadiko senior mailako Karate Txapelketa jokatu da Oñatin martxoaren 16an, Zubikoa kiroldegiko kantxan, arratsaldeko 16:00etan hasita.

Euskadiko karateka onenak bilduko dira bertan, Espainia mailan punta-puntan dabiltzanak eta nazioarteko txapelketetan ere lehiatzen ari direnak, tartean.

Senior mailako txapelketaz gain, Karate Egokituko txapelketa, Beteranoen mailako Euskadiko Kopa, Karate Egokituko Euskadiko txapelketa, eta Kadete mailako interautonomikoa ere jokatu da, Euskadi, Kantabria, Errioxa eta Nafarroako ordezkariekin. Goi mailako karateaz gozatzeko aukera bikaina, beraz. Sarrera doan izango da.



Lau oñatiarrek parte hartuko dute; Oier Alberdi, Kevin Martin eta Asier Natividad senior mailan ariko dira, eta Ainhoa Mateos karate egokituko txapelketan.



12 urterekin hasi zen karatea praktikatzen, eta bera da Aloña Mendiko prestatzailea azken 15 urteetan. Gerriko beltza eta 3. Dan maila du eta inork baino hobeto ezagutzen du Aloña Mendiko karate saila

Euskadiko txapelketa antolatu duzue 25. urteurrena ospatzeko.

Bai. Zerbait berezia egin nahi genuen, eta federazioak Euskadiko txapelketa Oñatira ekartzeko aukera eman digu. Euskadiko karateka onenak etorriko dira eta goi mailako ikuskizuna izango da, bai *Kata* (mugimenduen teknika) eta bai *kumite* (borroka) mailan. Oñatin ikusiko ditugun karateka batzuk punta puntan dabilta estatu mailan, eta nazioarte mailan ere ari dira. Ikustekoa izango da eta animatu nahi ditut herritarrak ikustera.

Bi lehiaketa mota egoten dira: *Katak* eta *Kumitea*. Zertan bereizten dira?

Katak dira karateko teknikak, erasoko eta defentsako mugimenduak. Indarra, abiadura, oreka eta teknika neurtzen dira. Bakarka edo bikoteka egiten dira. Mailan gora egin ahala gero eta konplexuagoak dira teknikak.

Kumitea berriz, konbatea



ALBERTO LERA / Aloña Mendiko Karate saileko prestatzailea



«Karateak bere lekua egin du Oñatin»

da, kirol lehia edo borroka. *Katak* aplikatuz, aurkariarengan puntuak markatzean datza, eskuekin edo hankekin, baina minik eman gabe (babesgarriekin egiten da). Aurkariengan ikutuak egiteaz gain, mugimenduen teknika ondo egitea ere puntuatzen da.

Oñatiarrik ikusiko al dugu?

Lau ordezkari izango ditugu: Oier Alberdi (+84 kilo), Kevin Martin (-67 kg) eta Asier Natividad (-75kg) lehiatuko dira senior mailan, eta Ainhoa Mateos egokitutako karate txapelketan.

Bestelako ekitaldirik anto-

latu behar al duzue 25. urteurrena ospatzeko?

Oraingoz ez. Apirilaren 6an gaztetxoendako urteroko txapelketa antolatuko dugu. Oñati, Bergara eta Antzuolako gaztetxoek parte hartuko dute, Benjamin, Alebin eta Infantil mailakoak.

Zer moduz dago karate saila 25. urteurrenean?

Ondo. Jende kopuru aldetik pittin bat behera egin dugu azken bi urteotan, baina, hala ere, 50 bat lagun gara, eta gustura gaude. Neskak ere gero eta gehiago dira eta pozik gaude.

Gainera, kalitate aldetik hobetuz goaz urtetik urtera.

Dagoeneko 6 gerriko beltz ditugu taldean, eta aurten beste laupabost saiatuko dira ateratzen. Gerriko beltzak atea zabaltzen du entrenatzaile edo epaile tituluak ateratzeko, eta hori inportantea da klubarentzat.

Kirol hau ezagutzen ez duenari zer esango zenioke karateaz?

Kirol oso konpletua eta gomendagarria dela. Psikomotrizitatea, koordinazioa, oreka, konzentrazioa... lantzen da, eta baita indarra eta erresistentzia aerobikoa ere. Gainera, filosofia bati lotutako kirola da, eta alde horretatik asko lantzen da diziplina, errespetua eta beste arau batzuk.

Urte asko daramatzazu Oñatiko karatearen alde lanean. Zer esango zenuke 25 urte betetzen diren honetan?

Karateak bere lekua egin duela Oñatin. Lan asko egin dugu eta lanean jarraitzen dugu, gaztetxoek irakasten, eta karateak Oñatin biziirik jarrai dezan ahaleginean, eta horrekin gustura gaude.

Eskerrak eman nahi dizkiet 25 urte hauetan zehar Oñatin karatearen alde lan egin duten entrenatzaile, direktibo eta laguntzaile guztiei. Santi Lizarra, Luis Iglesias eta Rikardo Arrizabalaga izan dira presidentek etapa ezberdinetan, eta Izaskun Plazaola ere lan handia egiten ari da azken urte luzeetan. Josean Iñarra bergararra ere aipatu nahi nuke. ■

 **Mekalki**
S. Coop. mekanizatuak

Mekanizazio zerbitzu integralak

Tel.: 943 78 19 11 | www.mekalki.es

Oñatiko XXVII. Duatloia jokatu da martxoaren 23an

- ▶ Gipuzkoako eta Euskadiko txapelak egongo dira jokoan Oñatin.
- ▶ Nagusien proba 16:00etan hasiko da. Goizean **Duatloi Txikia** jokatu da.

lazko etenaren ondoren (trafiko arazoaren ondorioz bertan behera geratu zen) aurten berreskuratu egingo da Euskadiko duatloi zirkuitoan beterranoenetakoa den Oñatiko proba. Gainera, Gipuzkoa eta Euskadiko txapelketa izango da eta, beraz, espezialistarik onenak bilduko dira bertan. Nagusien proba arratsaldeko 16:00etan hasiko da. Aurreneko korrikako saioan lehiakideek bi itzuli emango dizkiote 5km.-ko zirkuitorari herri barruko kaleetan zehar. Gero, bizikleta hartu eta bi itzuli emango dizkiote 18,3km.-ko ibilbideari, Oñati eta San Prudentzio artean, Arregiko aldapa gogorra tartean. Amaitzeko, itzuli bat korrikako ibilbideari. Trantsizioak egiteko boxes-ak Foruen plazan egongo dira, ohi bezala.

DUATLOI TXIKIA. laz bezala, aurten ere txikientzako duatloi probak jokatu dira goiz partean, herriko plazan. Bejamin (500m-1500m-250m), Alebin (1000m-3500m-500m) eta Infantil-Kadete (2km-7km-1km) mailako probak jokatu dira, 10:30etan hasita. (www.oinatikoduatloia.com)



Beñat Arnaiz, azken irabazlea (J. Cantero)

Axier Alonso, mendi eskiko Euskal Herriko txapelduna



MENDI ESKIA. Euskal Herriko bakarkako eta kronoigoerako txapeldun berria da Axier Alonso oñatiarra. Otsailaren 23-24an Izaba inguruan jokatu zen Bandres-Karolo memorialean erabaki ziren txapelak. Larunbatean, lineako proba jokatu zen (21 km. / 800 m.+) Lakhura mendian eta 2:20:31 denborarekin osatu zuen oñatiarrak. Igandean, kronoigoera jokatu zen Larrondo gailurrera (800m+) eta 45:29tan osatu zuen igoera, sasoi betean dagoela erakutsiz. Emakumezkoetan Igone Campos zumarragarra nagusitu zen. Bestalde, Aitor Otxoa oñatiarrak anolakuntzaren omenaldia jaso zuen, eta Axier Alonsok dantzatu zion ohorezko aureskua.

Bestalde, Aitor Otxoa oñatiarrak anolakuntzaren omenaldia jaso zuen, eta Axier Alonsok dantzatu zion ohorezko aureskua.

Kepa Aldekoak Espainiako txapelketarako marka lortu du

IGERIKETA. Infantil mailako Euskal Herriko neguko igeriketa txapelketa jokatu zen otsailaren 23an eta Aloña Mendiko igerilariak maila bikaina erakutsi zuten. Kepa Aldekoak urrezko domina irabazi zuen 200 Bizkarrean (2.12.84) —Espainiako txapelketarako gutxieneko denbora—, eta zilarrezkoa 100 Bizkarrean. Ekain Gorgoñon ere bigarren sailkatu zen 800 Libreetan (9.23.67).



Buciero mendia (Santoña)

MENDI IRTEERA. Aloña Mendik antolatuta, **martxoaren 24an** egingo den irteerak Santoña gainean dagoen Buciero mendira eramango gaitu. Penintsula itxura dauka eta paraje ikusgarriez gozatzeko aukera egongo da (Faro Caballero, Faro del Pescador, hondartzak...). 14,8 km.-ko ibilbidea izango da zailtasun barik. Irteera, goizeko 7etan. Izena emateko azken eguna, martxoak 21, Aloña tabernan edo *alonamendi*. mendi@gmail.com

Diaz de Monasterioren Euskadiko txapeldun eta Mugarza Espainiako txapelketara

ATLETISMOA. Aloña Mendiko korrikalariak oso maila onean aritu dira pista estaliko azken txapelketetan. Euskadikoan, **Aitor Diaz de Monasterioren** garaipena lortu zuen 800 m.-ko lasterketan (2:05:31) Sub-18 mailan; **Malen Saiz** bigarren sailkatu zen 400 m.-tan, **Beñat Guridi** bosgarren-Sub-20 mailako 800 m.-koan eta **Nahia Lasagabaster** zazpigarren Sub-18ko 1500 m.-koan. Gipuzkoako txapelketan Malen eta Nahia bigarren sailkatu ziren eta Beñat hirugarren. Bestalde, Euskadiko Kros Federazioak **Igor Mugarza** hautatu du martxoaren 3an Sevillan jokatu den Espainiako txapelketan parte hartzeko.



Ainara Uribarrik bi garaipen

MENDI LASTERKETAK. Ainara Uribarri sasoi bete-betean dago. Otsailaren 10ean Zestoako Kobaz Koba lasterketako proba motza (15km) irabazi zuen eta martxoaren 3an Espainiako Kopako lehen proba puntuagarria Borriolen promesa mailan.



Etxegarai eta Osés sasoi betean

PILOTA. Maddalen Etxegarai eta Uxue Osés pilotariak Zizurgo txapelketako finala jokatu dute elkarren aurka martxoaren 9an eta egun berrean, bikote gisa Master Cup-eko finalerdian ariko dira.





GANBARA ABESBATZA

Diskoa, liburua eta kontzertua

25. urteurrena ospatzeko

» Ganbararentzat espresuki sortutako **Stabat Mater**-a abestuko dute Arantzazuko basilikan martxoaren 30ean

Kantuan ospatu nahi du, nola bestela, 25. urteurrena Ganbara Abesbatzak. Eta kontzertu berezi batekin gainera. 'Stella Maris' du izenburua programak eta Arantzazuko ama birjinari eskainitako emanaldia izango da. Hogeita bost urteko ibilbidean hainbat pieza eskaini izan dizkio Ganbara Abesbatzak ama birjinari, eta horietako ederrenak abestuko dituzte Arantzazuko basilikan: *Ave virgo sanctissima* (F. Guerrero), *Ave Maria Stella* (E. Grieg), *Ave Maria* (K. A. Memley), *Salve Regina* (J. Villa i Casañas)...

STABAT MATER-aren ESTREINALDIA

Kontzertuaren bigarren zatia ere oso berezia izango da. Iker Gonzalez musikagile zumaiarrak Ganbararentzat berariaz idatzitako Stabat Mater-aren estreinaldia izango baita. Hogeita bost minutuko obra da, korua eta pianoarentzat, latina eta euskara nahasten dituen testuetan. Stabat Mater-ak Golgota mendira eramango gaitu. Semea hiltzen ikusi duen Ama negarrez dago, eta testu liturgikoek Ama Birjinaren dolua deskribatzen duten bitartean, euskarazko olerkiak semea galdu duen amaren ahotsa izango dira, hasierako oinazetik amaierako itxaropenera iritsi arte.

AUTOBUS ZERBITZUA ARANTZAZURA

Kontzertu berezia izango da, bai programagatik eta baita agertokiagatik ere. Arratsaldeko 19:00etan hasiko da, eta bertara joateko autobus zerbitzua (2€) egongo da; 18:15etarako herriko hiru geltokietan egon beharko da. Kontzerturako sarrerak (10€) Txokolateixan eta udalaren txarteldegi digitalean eskura daitezke.



'GURE BIDEA' disco-liburua

Martxo amaierarako aterako du Ganbara Abesbatzak 25. urteurrena ospatzeko grabatu duen diskoa. Bere ibilbideko hirugarrena, **Sagatz** (2004) eta **Amaraun** (2014) lanen ostean.

Gure bidea izeneko lan berriak 17 kanta biltzen ditu; *a capella* batzuk, pianoa edo orkestrarekin grabatutakoak beste batzuk, baina denak esanahi berezia dutenak abesbatzarentzat. Azkoitiko Santa Krutz komentuan grabatu zuten azaroan

Diskoarekin batera 'GURE BIDEA, 25 URTE' izenburua duen liburuska bat kalera-tuko dute, 25 urte hauetako historia, argazki eta hainbat lagunen (koralista ohiak, konposatzaileak, senideak...) adierazpenekin.

CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teleline.es



MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxes: 943 71 62 40

BERATU JAIALDIA

Kontzertuak, tailerrak, hitzaldi-solasaldiak, filmak...
Euskal Herriko musika garaikidearen topagunea
izango da Oñati **martxoaren 27tik 31ra**

ZER DA BERATU JAIALDIA?

➔ Herriko hainbat musika zaleren ekimenez sortutako jaialdia da. laz antolatu zen aurreneko aldiz eta aurtengoa bigarrena izango da. Udalaren babesa eta laguntza dute jaialdia aurrera ateratzeko.

➔ Euskal Herriko musika taldeen proposamen berriak eta ezberdinak ezagutzera emateko espazioa izan nahi du.

➔ Euskaraz abesten duten sortzaileek dute lehentasuna, eta ipar Euskal Herriko taldeen nahiz emakumeen parte hartzea sustatzen ditu.

➔ Euskal Herriko kanpoko talde bat ere gonbidatzen du. laz *Maria Arnal* eta *Marcel Bages* kataluniarrak egon ziren eta aurtur *Mohama Saz* madrildarrak etorriko dira.

➔ Haurrei zuzendutako eta familia giroan parte hartzeko ekitaldiak ere antolatzen ditu (Beratu Txiki).

➔ Musikaren ertz ezberdinak bizitzeko modu berri bat proposatzen du: gertukoa, hurbila. Musikariak gertutik ezagutzeko eta beren egoeraz eta etorkizunaz gogoeta egiteko espazioa izan nahi du, musikarien eta profesionalen arteko topakeak, mahai inguruak eta abar antolatuz.

LOU OLANGUA, ROCK KANTARIARI BURUZKO DOKUMENTALA

➔ Jaialdiari hasiera emateko, *Lou*, dantzan *jo ta ke*, *oinak lehertu arte* dokumentala ikusi

ahal izango da kultur etxean. Euskal rock erradikalaren garaian oholtzan kantari ikus zitezkeen emakume bakanetako bat izan zen Lou Olangua (Zarautz, 1960-2013). Bere bizitzari buruzko dokumentala ikusi eta egileekin hitz egiteko aukera egongo da.

'MUSIK FEM' MAHAI INGURUA

➔ Emakumeek musikaren industrian eta, zehazki zuzeneko musikan duten presentziaren gogoeta egiteko foroa da. Aldizkaria ixteko garaian zehaztu gabe zeuden hizlariak.

MUSIKA ETA KAZETARITZAREN ERRONKAK ARO DIGITALEAN

➔ Arloko profesionaleri, musika eragileeri eta interesa duen orori zuzendutako topaketa, word-cafe formatuan. *Entzun.com*, *Badok.info* eta *Zarata-Mondosonoro* bezalako elkar-teek parte hartuko dute.

MUSIKA AUTOEKOIZPEN TAILERRA

➔ Musikariei zuzendutako tailerra, Ainara LeGardonen eskutik. Jabego Intelektuala-ekin lotutako gaietan aditua da bera, eta autoekoizpenaren abantaila eta desabantailak hitz egingo du. Tailerra doan izango da, baina plaza mugatuak dira (15 lagun). Aurrez izena eman behar da beratujaialdia@gmail.com helbidean.



ANTOLATZAILE TALDEKO
KIDEETAKO BATZUK

EUSKAL HERRIKO TALDEEN PROPOSAMEN BERRIAK EZAGUTZEAZ GAIN, MUSIKAREN EGOERAZ ETA ETORKIZUNAZ HAUSNARKETA EGITEKO GUNEA ERE ESKAINI NAHI DU JAIALDIAK

MASAJEA ETA TERAPIA ALTERNATIBOAK

- Mina ekiditeko alternatibak
- Lumbagoa, bizkarra, lepoa eta askoz gehiago

CHAOWEN

Kalegoieba 1. behea 688 682 199
Oñati 697 943 477

JUANJE MARGOAK

T. 627 818 247

EGITARAUA

MARTXOAK 27

► **Zine emanaldia** Lou Olangua musikariari buruzko dokumentala eta solasaldia egileekin. Kultur etxean, 19:00

MARTXOAK 29

► **Musik Fem** mahai inguru. Kultur etxean, 19:00

► **Kontzertua.** Ainara LeGardon-en emanaldia Antixena gaztetxean, 22:00. Doan

MARTXOAK 30

► **Topaketa.** 'Musika eta kazetaritzaren erronkak aro digitalean'. Eltzian, 10:00-14:00

► **Tailerra.** 'Musika autoekoizpena' Ainara LeGardon-en eskutik. Eltzian, 9:00-12:30

► **Kontzertua.** Juan Valls trio eta Madeleine, San Lorentzoko ermitan, 18:00

► **Musika jaialdia.** Elena Setien, Vulk eta Atom Rhumba taldeen kontzertua Gaztelekuan, 22:00

MARTXOAK 31

► **Beratu Txiki.** Hurrei eta familiei zuzendutako gunea. Lazarraga parkean edo Foruen plazan goizean zehar.

► **Kontzertua** Mohama Saz madrildarren kontzertua Lazarraga lorategian, 12:30

► **Usopop jaialdia.** Saran egiten den *Usopop* jaialdiaren bitartez *Orbel* eta *Unama* iparraldeko taldeen kontzertua. San Martin ermitan, 18:00.

KONTZERTUAK

➔ Zuzeneko hainbat emanaldi izango dira Beratu jaialdiaren baitan, eta, iaz bezala, herriko azpiegitura eta gune ezberdinetara eramango dira: Eltzia, Lazarraga, Antixena gaztetxea, Gaztelekua, San Martin eta San Lorentzoko ermitak...

AINARA LEGARDON. Rock independentea eta soinu esperimentazioaren arloa jorratzen duen artista bilbotarrak bere azken lana aurkeztuko du.

JUAN VALLS TRIO. Valls oñatiarraren blues, folk, country doinuez gozatu ahal izango dugu, hirukote formatuan, Xabi Elorza eta Iñigo Ugarte lagun dituela.

MADELEINE. Musika instrumenatala jorratzen duen post-rock talde donostiarra da Madeleine. Bere hirugarren diskoa (Su hura) aurkeztuko du.

ELENA SETIEN. Folk-rock askea, underground-a egiten duen musikari donostiarra atera berri duen disko berria aurkeztuko du.

VULK. Ingalaterrako post-punketik edaten duen Bilboko taldeak iaz kaleratutako lehen lan luzea aurkeztuko du. Zuzeneko onena duen estatu mailako taldea izendatu zuen *Ruta 66* aldizkariak 2017an.

ATOM RHUMBA. Bilboko rock musika talde eklektikoa da. New York-eko 70. hamarkadako rock zaratsua egiten dute, James Brownen estilo erritmikoen ukituekin. Zuzeneko indartsuak dituzte.

MOHAMA SAZ. Euskal Herritik kanpoko talde gonbidatua izango da aurtengo Beratu jaialdian Mohama Saz boskote madrildarra. 'Viva el rey' hirugarren diskoa aurkeztuko dute. Rock psikodelikoa egiten dute, mediterraneoko kultura ezberdinetako musikaren ukituekin.

ORBEL eta **UNAMA.** Saran (Lapurdi) egiten den *Usopop* jaialdiarekin elkarlanean, iparraldeko Orbel eta Unama taldeak gonbidatu ditu Beratu jaialdiak. Orbel, folk iluna eta post-rock geldoa egiten duen talde lapurtarra da. Unama, berriz, Heletako (Nafarroa Beherea) folk musika taldea da.

Iraultzatik ikasten; Euskal brigadistak Rojavan

HITZALDIA Udan Kurdistanen izandako euskal brigadistek hitzaldia emango dute **Antixena gaztetxean, martxoaren 14an**



(18:30etan). Kurduen askapen mugimendu iraultzaileaz jardungo dute, emakumeen borrokaz, Ekialde Hurbileko geopolitikaz, militantzia eredu ezberdinez, eta beste borroka ereduak uzten dizkiguten irakaspen eta kontraesanaz. Jatekoa ere egongo da.

'Eta gertatu izan balitz?' Goardia Zibilak Arantzazun egitekoa zuen operazioaz

DOKUMENTALA Khuruts Begoñak egin duen 'Eta gertatu izan balitz?' filma laburra emango dute otsailaren 21ean, Santa Anan (19:00). Euskaldunon Egunkaria itxi eta lau egunera Arantzazuko santutegira abiatu ziren Espainiako segurtasun indarrak. Operazioaren helburua ez zen inoiz argitu, ez baitzen baurutu. Dei bat jaso zuten bide erdian. Baina zer gertatuko zen Guardia Zibila euskal kulturaren ikur bilakatu den egoitzan sartu izan balitz. Horixe jorratzen du filmak.

Tatiegi, Eskolarteko bertso txapelketako finalera

BERTSOLARITZA Otsailaren 15ean Ibañan jokatu zen lehen kanporaketa irabazita, Gipuzkoako 39. Eskolarteko txapelketaren finalerako txartela eskuratu du **Aitor Tatiegi** bertsolari oñatiarrak. Apirilaren 5ean izango da finala, Lasturren. Aurretik, baina, beste hiru kanporaketa saio jokatu dira, eta horietako bitan oñatiar bana ariko da. **Xabier Agirrek** martxoaren 15ean kantatuko du Orion, eta **Bittor Zubiagirrek** Oñatiko Larrain Gain elkartean, martxoaren 22an.

Catalana Occidente
Mikel Egaña Urrutia
Aseguruak

Eskatu aurrekontua kompromezu gabe:

✓ Heriotza	✓ Istripuak	✓ Etxebizitza
✓ Autoak	✓ Ontziak	✓ Aurrezkia
✓ Bizitza	✓ Osasuna	✓ Laborantza

Helbidea: Motxon 5, behea
638 16 79 84
mikel.egana@agentes.catalanaoccidente.com

Almaraz
Inmobiliari gestioa

Tel.: 679411444
www.almaraz.info

Carmelo Pérez de Almaraz
"Gure bezeroen eskari eta beharrei erantzun nahian, etxebizitza, lokal, garaje, baserri, lursail edo pabilioi bat saldu edo alokatu nahi baduzu, dei diezaguzu".

RAFA RUEDA

Korrika Kulturalaren baitan, abeslari eta gitarrajole bizkaitarra ariko da. Sarrera, 5€. **12:30, Gaztetxea**



ZINEGOAK

Gay-lesbo-trans zinema eta arte eszenikoaren jaialdia. Film labur sorta. **19:30, kultur etxea**

MUSIKA

**MARTXOAK 9 / 19:00
LETTER TO THE WORLD**

Mundu mailako emakume konpositzaileen obrak, Hots eta Ganbara Gazte Txiki eta Txikitxoren eskutik. **Santa Anan.**

**MARTXOAK 9 / 19:30
EGURRA TA KITTO +
KRONOPIOS BAND**

Azpeitiako ska-rock taldea eta estilo ezberdinak (latin, funk, hip hop) uztartzen dituen talde kataluniarra. Sarrera, 6€. **Gaztelekuan.**

**MARTXOAK 10 / 19:30
TRIGGER + PAUL**

Eñaut Zubizarreta biolontxelistak da Trigger eta bide berriak jorratzen ditu pedalak eta elektrifikazioa erabiltzen. **Itturri tabernan.**

**MARTXOAK 22 / 22:00
KEPA ZELAI**

Gazte oñatiarra bakarka ariko da. Azkenaldian sortutako kantu berriak eta gertuko bertsoak eskainiz. **Antixena gaztetxean.**

**MARTXOAK 22 / 22:00
SINDY BERBENAS**

Arrasateko rock taldearen kontzertua. **Pako tabernan.**

AGENDA



MARTXOAK

10

BAKEAN DAGOENA BAKEAN UTZI

Umorezko bakarriketak, generoa eta euskara gai hartuta, Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai umore saltseroen eskutik.

Bakarriketak

19:30, Santa Ana (Sarrera, 3€)

**MARTXOAK 24 / 12:45
MUSIKA BANDA**

Oñatiko musika bandaren kontzertua. **Santa Ana.**

**APIRILAK 5 / 22:00
KOBRAZULO**

Antzuolako rock taldearen kontzertua. **Itturri tabernan.**

HITZALDIAK

**MARTXOAK 14 / 18:30
IRAULTZATIK IKASTEN.
EUSKAL BRIGADISTAK
ROJAVAN**

Iazko Kurdistanen egondako brigadistak hango askapen mugimenduz ariko dira. **Antixena gaztetxean.**

**MARTXOAK 26 / 18:30
'NEOEXTRACTIVISMO Y
PATRIARCADO COLONIAL.
UNA MIRADA DESDE EL
FEMINISMO DEL SUR'**

Tania Cruzekin (Territorio y Feminismo kolektiboa) solasaldia. **Udaletxean.**

ANTZERKIA

**MARTXOAK 17 / 19:00
'ZORION HUTSA'**

Tolosako *Katuska* talde amateurraren azken lana. Gaurkotasunarekin lotutako gaiak jorratzen dituzte, hausnarketarako bidea zabalduz. Sarrera; 3,5€. **Antixena gaztetxean.**

TAILERRAK

**MARTXOAK 12 / 17:30
MEMORIA TAILERRA**

Oihana Fernandezek eskutik. **Pake Lekun**

**MARTXOAK 23
MASKULINITATEA**

Gizonezko izaera hegemonikoak zalantzan jarri eta beste eredu batzuei buruz hausnarketa egiteko saioa. Goizean zehar. **Antixena gaztetxean**

DOKUMENTALAK

**MARTXOAK 31 / 19:00
'11 BAINO +; HAS
GASTEIZEN EUSKARAZ
BIZITZEN'**

Mikel Ezkerro zinemagileak Gasteizko Euskaraldiaren baitan egindako ikus-entzunezkoa. Euskarak Gasteizen bizi duen egoera azaltzen du. Egilea bera ere bertan izango da. **Antixena gaztetxean.**

BULKADA EGUNA

**MARTXOAK 16 /
HITZALDIA+KONTZERTUA**

Ernai gazte antolakundeak antolatuta, apirilean egingo den Gazte Topagunera begira antolatutako ekitaldia. Arratsaldean



Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 11 15 • www.batuak.com

'Oraina borrokatzeko koodenadak' hitzaldia egongo da gaztetxean. Ondoren jaialdia, *John Dealer and The Coconuts* eta *Txarrakumeak* taldeen eskutik. [Antixena gaztetxean.](#)

IRLANDA EGUNA

MARTXOAK 30 IRLANDAKO EGUNGO ERREALATEA

Irlandako errealitate politiko, sozial eta kulturala ezagutzeko eguna. Hitzaldia, bazkaria, bertsolariak eta kontzertua egongo dira. [Antixena gaztetxean.](#)

BATZAR NAGUSIAK

MARTXOAK 22 / 17:30 PAKE LEKUKO

Pake Lekuko urteko batzar nagusia. [Santa Anan.](#)

IPUIN KONTAKETA

MARTXOAK 28 / 18:00 OSTEGUN KONTALARIAK

3-5 urteko haurrentzat, Maite Francoren eskutik. [Haurren liburutegian.](#)

KORRIKA

APIRILAK 6-7 ZUBEROAKO KORRIKA

Gaztetxeak antolatuta, Zuberoako gazteekin Korrikan parte hartzeko irteera. Larunbatean gazteen arteko harremanak sendotu eta gaztetxera bisita. Igan-dean Maulen Korrika eta maskaradak ondoko herrietan. Izena eman gaztetxeke sare sozialetan edo Arrano tabernan.

LIBURUTEGIA



Hileko gomendioa

Hamaika pertsonaia historiko eta gatazka ezagutzeko gida. Edozein borrokan dauden faktore ezberdinen bila aritzeko gonbidapen bat. Davisen bi arimak, aktibistarena eta irakaslearena, bost kontinenteetan zehar izan ziren solasaldietan eta jardunaldietan.

ZINEA



Martxoak 7 - 11

ZINE KLUBA:
Carmen y Lola

NAGUSIAK:
Una cuestión de género

GAZTETXOAK:
Uno más en la familia

Martxoak 21 - 25

ZINE KLUBA:
Border

NAGUSIAK:
70 Binladens

GAZTETXOAK:
Corgi: Las mascotas de la reina

Zine-kluba: Osteguna (20:00)
Nagusia: Ostirala eta larunbata (22:30)
Igan-dea (19:30 eta 22:30)
Gaztetxoak: Larunbat eta Igan-dea (17:00)
Ikuslearen eguna: Astelehena (19:30)

Martxoak 14 - 18

ZINE KLUBA:
Viaje al cuarto de una madre

NAGUSIAK:
Sobre ruedas

GAZTETXOAK:
La Logo 2 Filma

EL REY

Martxoaren 19an Alberto San Juanen filma kusi ahal izango da kultur etxean (19:30 / 22:30), Juan Carlos I erregeari buruzko filma.



FARMAZIA

ANDUAGA

San Lorenzo 3 ☎ 943 78 21 16
Martxoak 6, 7, 16, 16, 17, 25 eta 26.
Apirilak 3 eta 4.

IGARTUA

Kale Zaharra 1 ☎ 943 78 01 22
Martxoak 8, 9, 10, 18, 27 eta 28.
Apirilak 5, 6 eta 7.

GARATE

Kale Barria 42 ☎ 943 78 05 58
Martxoak 11, 12, 19, 20, 21, 29, 30 eta 31.

ULDAIN

Kale Barria 6 ☎ 943 78 11 28
Martxoak 13, 14, 22, 23 eta 24.
Apirilak 1 eta 2.



MERKATU TXIKIA

GARAJE ITXIA SALGA Ugarkalde auzoko 18 zenbakian. Ate automatikoa eta 29m². Tel.: 652 735 405

ETXEBIZITZA BILA Oñatiko familia batek etxea alokairuan hartzeko behar du. Deitu: 666 741 493.

ODOL ATERALDIA


MARTXOAK 8 / 17:00-19:00
Greba dela eta atzeratu egingo da martxoaren 8ko ateraldia.

PLASTIKO BILKETA

MARTXOAK 26 / 17:00-19:00
Landa ingurunean sortutako plastikoak bilketa puntuetara ateratzeko eguna

smk
san miguel kooperatiba
943 781 217
kale barria 8 - 20560 oñati
www.sanmiguel.coop

EGUR-LAN
AROSZTEGIA
LIMABAR S.A.L.
BEREZAIO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)
TEL / FAXA: 943 78 14 59 limabarsal@gmail.com
www.egur-lan.es

 Jerardo Elortza
eta Xabier Zelaia



OÑATI >

KALERIK
-
KALE



Zubikoa

-

San Juan kalea (II)

Mendeetan zehar herriko gune nagusitik hain hurbil eta aldi berean hain urruti egon eta mantendu izan den auzo-kale honek badauzka, aurrekoan esandakoetatik aparte, beste ezaugarri aipagarri batzuk ere. Horra, ba, horietako batzuk.

KUARTELA

San Juan kalearen historian bada hain ezaguna ez den xehetasuna: zazpi bat urtean soldadu mordoxka baten **kuartela kokatu zela bertan**, alegia. XIX. mendearen bukaeran gertatu zen hori. Gerra ugari jasan behar izan zituen herriak gizaldi hartan. Azken karlistaldiko gatazka (1872-1876) amaitzear zegoela, **Emeterio Madinabeitia** Oñatiko alkate liberalak eta Baskongadetako kapitain jeneral **Jose Maria Lomak** hitzartu zuten herrian 700 bat soldadurentzako egonlekua jartzea.

Hartarako **arrazoiak** honako hauek izan zitezkeen: batetik, Oñati bezalako udalerrri garrantzitsu batean, gerra bukatuta gero ere, garaileen **ordenamendu berria bermatzeko** indar militarren premia egotea; eta bestetik, unibertsitatea, gorabehera askoren ondoren, berriro ixtean, udalerrriaren **diru-iturri inportante bat** nola edo hala ordezkatu beharra. Beraz, ironiko samarra baldin bada ere, **soldaduak estudianteen lekuan**, herriaren ekonomia larriari laguntzatxoren bat ekarriko ziotelakoan.

Horrenbestez, soldadu pila bat eta euren agintariak geratu zitzaizkigun Oñatin. Batzuk, **300en bat, unibertsitatean** moldatu ziren; **beste 400 inguru**, handik hurrean sartu zituzten, **San Juan kaleko bi etxetan**: gaur egungo 3. eta 5. zenbakietan, hots, gure garaiko **Otxuenean** eta **Kirriñenean**. Ondo tolestaturik egin beharko zuten lo. Egoera hark 1883ko azaroaren

amaiera arte iraun zuen, orduan atera baitziren soldaduak herritik. Dena den, ez zuten denek alde egin, orduko militarren ondorengo batzuk guk geuk ezagutu baititugu.

GAIXOTASUN KUTSAKORREN IKUSKARITZA-ETXEAK

Izenburu luze eta ilun samar horrek azalpen garbiagoa behar du, noski. Saia gaitezen, ba. Militarrek joan eta urte betera beste **arazo latz bat azaldu zitzaion udalari**: Frantziako Tolon-eko itsas portutik hedatutako **kolera morbo asiarrari aurre egin beharrean aurkitu ziren**, beste izurrite historiko askorekin bezala. Hasieran, 1884ko uztailan, kolera-kasuak gertatu ezker, halakoak isolatzeko eta artatzeko San Martin ermita erabiltzea erabaki zen.

Alabaina, gerora leku hobe bat bilatzeari ekin zioten. Hartarako, 1885ean, **San Juan kalean etxe bat egokitzea pentsatu zen**. Kalearen akaberan zegoen, eskuma aldetik. Gaitzak jotako



Oñatiko Historia eta Arte Bilduma

Inguru honetan kokatuko zen gaixotasun kutsakorrek ikuskatzeko etxea.

gaixoen ikuskaritzarako erabiliko zen, batik bat. Horrek, ordea, **auzotarren izua piztu zuen**, izurriak inguruko etxeetan izan zezakeen eraginagatik. Kezkatuenetakoa eta borrokalaria **Lucio Carrere izeneko eskola-maisua** genuen. Auzi eta joan-etorri ugari gertatu ziren hurrengo hilabeteetan, auzotarren, udalaren eta gobernadorearen artean.

San Juan kaleko biztanleei honako hauek agindu zitzaizkien: etxe hura ez zela erabiliko koleraz kutsatutako gaixoak **kuarentenan** edukitzeko, baizik eta **ikuskaritza-etxea izateko bakarrik**. Dena den, 1885. urte horretako azaroaren hondarrean amaitutzat jo zen koleraren arriskua, eta momentuz hala bukatu zen arazoa. Baina 1892ko abenduan **baztanga-izurritea** zabaldu zen, hots, hemen **astagorriña** gisa ezagutzen genuena.

Orduan ere, gaitz horrekin **kutsatutakoak artatzeko lekua San Juan kalean** eratzeko asmoa zuen udalak. Auzoko **bizilagun gehienek**, ordea, **alkatearengana jo zuten**, halakorik egin ez zezaten erregutuz. Eta oraingoan lortu zen auzotarren nahia gauzatzea, gaixoentzako toki hori une hartan hutsik zegoen unibertsitatean jarri baitzuten azkenean. **Halako premietarako**, gerotxoago jasoko zen paraje isolatuagoan, errekez bestaldetik, **Gorriñetxe izeneko eraikina**, XX. mendearen lehen hamarraldietako argazkietan ikus daitekeena.

KOLEGIOALDERAKO ZUBIA EDO PASABIDEA

San Juan kaletarrek betidanik aldarrikatu dute **Kolegialdera**, unibertsitate ingurura, **hurreratzeko pasabidea**, erreka gaine-



Oñatiko Historia eta Arte bilduma

Abere-hiltegi ondoko zubia, 1960 inguruan eraikia.

tik zeharkatuz. Mutikotan, ur gutxi zihoanean, harri gainetatik igarotzen ginen batetik bestera, sarritan uretan **bolante** egin eta bustidura majoa hartuz. Gure gazte denboran, 1950ko hamarkadaren amaieran eraiki zuen Udalak **burdinazko egitura zuen zurezko zubia**, orain dagoen hormigoizkoa moldatu arte mantendu zena.

Baina hori ez zen lehenengoa izan: **1840 inguruan zurezko egitura zuen behin-behineko zubi esekia (puente colgante)** jaso zuten auzoko sutegien jabeek eta beste partikular batzuek, eurek ordainduta; Udalak bi pieza nagusi eman zizkien herri basoetatik; eta 1846an **uraundi batzuek zubia erabiltezinik utzi** zuten, **konpontzeko laguntza eskatu** zuten auzotarrek. Udalaren iritziz, baina, partikular batzuek soilik baliatzen zuten zubia, ohiko bide publikoa (plazatik zehar) alde batera utziz, luzetxoagoa zelako aitzakian. **Kontzejuak** erantzun zien **ez zeukala eskumenik, komenientzia partikularreko obretan udal fondoak xahutzeko**. Egin zezakeen bakarra, bere basoetatik zubi eseki izango ziren bi pieza nagusiak udal basoetatik ematea zela, horretarako aurrez eskuratu zirenak hondatuta baldin bazeuden beti ere.

Zerbait egingo zuten, 1851. urtean 42 erreal ordaintzea erabaki baitzen, San Juan kaleko pontoia konpontzen egindako gastuengatik. Baina horrek ez zuen luzaroan iraun, eta ondoren **harriak jarri zituzten berriro**, errekatik zehar, abere-hiltegitik Kolegio Kalera joateko. Horiek mantentzea izan zen Udalaren lana aurrerantzean. 1886ko maiatzaren 13an 7,50 pezeta eman zituen pasabidea konpontzeko.

1891. urtean **pasabide hobea prestatzea eskatu zuten auzotarrek**, hartarako zeuden harriak urek estaltzen zituztelako. Udalak erantzun zien, herriak behar asko izanik, **ezin zuela eskaera onartu**. Auzotarrek 1899ko irailaren 2an berregin zuten toki horretan zubia jartzeko eskabidea. Hilaren 23an Udalak erantzun zien, bazekiela zegoen pasabidea baino egokiagoa zela zubia, baina ez zuen inolaz ere horren beharrik ikusten. Distantzia ia ez gutxitzeaz gain, plazatik joatea motza eta oso eroso omen zen, eta zubia eraikitzearen kostua handia. Beraz, zubirik ez egitea onartu zuen. **la hirurogei urte** itxaron behar izan zuten auzotarrek, **euren desioa bete ahal izateko**.

Konturatuko zineten, honezkero, San Juan kaleak, handia izan gabe, alor askotarako idazgaiak eskaintzen dituela. Hurrengo atalean garatuko ditugu horietako beste batzuk: etxe-izenak, lanbideak, abere-hiltegia, kale-baserriak, jaiak eta abar.

 **ETXiAN**
Inmobiliaria

Etxebizitza edo lokal bat saldu nahi duzu?

Tel.: 943 71 61 60
Mug.: 610 381 244
www.etxian.net
EtXian 

 **carpintería GARIBAI aroztegia**

Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com
www.garibai-aroztegia.com



>> Jakingarrixa

San Jose Patroziñuak: Olabarrietako lehengo jai nagusixak



Zutik dagozen mutillak ezkerretik eskumara: Aldaiko Jesus Altelai, Errementeriko Juan Aizpeurrutia, Mangaiko Joxe Urzelai, Muñoko Fermin Zubia eta Errementeriko Jenaro Aizpeurrutia. Burdi barruan Zelabarreneko Enrike Zubia eta *Andoain* soinujolia. Fotografixia 1950ekua da.

Lehenago, martixaren 19xan, San Jose egunian, goizian goiz, orainddiok illunetan, auzoko maiorazkuak eta herriko ermandadekuak, kapa baltzak soiñian eta kandela senduak eskuetan, faten ziran meza nagusira Olabarrietako ermittara. Eta, ondoren, Jurgi baserrira mokadutxua egittera.

Pazko Bigarreneko arratsaldian, berriz, herri guztirako lehenengo erromerixia egitten zan, eta kaletarrak gustura baiño gusturago faten ziran urtero Olabarrietara Murgiko Elorrixako soiñujoliaren doiñuekin dantza egittera. Jaixori auzoko kinttuak eta solteruak organizaitten euen: diru-batzeia, oholtza-ifinttia, soiñujolia ekartia...

Aurretik egin biharreko lan guztiak, beraz, gaztien esku egoten ziran. Diru-batzeia aittatu dogunez, jakin egizue etzala edozein modutan egitten: auzoko kinttuak bakarrik parte hartzen euen, auzoko solteruen etxietara fanda eta diru-eskia egiñaz.

San Jose Patroziñuak Pazko Domekatik hiru astera ospaketan ziran, hau da, hiru domeka geruago, eta horreitxek izaten ziran orduko jaixak, auzoko nagusixak esan degigun, Pazko Bigarrenekuaren aldian inportantiak.

1955ian, Pio XII.a Aita Santuaren baimenagaz, martixaren 19ko jaixa eta San Jose Patroziñuak mariatzaren lehenengora pasau ziran, San Jose eguna betik garizumiarekin batera tokaitiak oztopo edo eragozpen ugari sortzen zittuelako eta horreik danak ebitaittia gura zalako.

Hala eta guztiz be, esan bihar da gaur egunian San Jose eguneko jaixak edadeko jentiaren artian inddarra eztauela guztiz galdu eta orainddiok mezia eta ondorengo mokadutxua be egoten dala faten direnendako.

Eskerrik asko Muñoko Fermin, Tirueneko Bernabe eta Etxaingo Maritxu barriemaillia!

ANTXIÑAKO 📷 FOTOGRAFIAK



1953ko euskal jaialdi antzeko bat

Gaurko fotografia honeitan 1953ko martixaren 9ko arratsaldian Oñatiko unibersidade zaharreko patixuan izandako **herri-kirolen jaialdi** baten testigantzia dakartzuegu. Astelehena izan arren, etzan astegun buruzurixa. Bezperan, domekan, gure herrixan egindako bizikleta-karrerarik famauena ospatu zan: **Munduko ziklo-kross IV. txapelketia**. Sarrittan gogoratu dittugu orrialde honetitan kirol-gertaera haretako pasadizuak. Baiña karrera nagusi haren onduan beste gertaera eta jaialdi batzuk be bizi izan zittuan Oñatik: bixamonian, astelehen goizian, adibidez, **Arantzazurako XVI. txirindulari-igoeria**, **André Dufraisse** frantsesak irabazi ebena, **Hortensio Bidaureta** naparraren aurretik; eta arratsaldeko bostetan gorago aittatu dogun unibersidadeko ikuskizuna.

XVI. gizaldiko klaustro dotore horretan bi aizkolarik eta harrijasotzaille batek eskiñi osten euren saixua txantxikuar askori eta kanpotar batzueiri. Aizkora-lanetan Urretxuko **Ramon Iurrebasok** eta Etxarri Aranazko **Juan Goñik** jardun euen, eta harrixarekin **Luis Atxaga** aiarrak. Oñatiko dantzariak be emun euen erakustalditxo bat, **Alejandro Irizar Aunxolaren** zuzendaritzapeian. Aurkezle moduan **Iñaki Eizmendi Basarri** ibilli zan; erderaz, oso oker ezpanago, eta ez eben bertsozik bota. Jaialdi horretako argazki pillatxua gordeten da udal artxiboko **Patxi Elortza** fonduan.


Fotografia horrein artetik paria aukeratu dogu. Txikiñian **Luis Atxaga** indartsua ikusi geinke **Reyes Korkostegi** antolatzaillia-ekin berbetan, eta lenenengo planuan **harri borobilla**. Haundixian patixuaren buelta guztian egozen **ikusle mordoko banaka batzuk** agiri dira, exhibiziñua gustura jarraiketan. Euren artian kanpotarren batzuk badira, baiña gehixenak edade desbardiñetako oñatiarrak dittugu, kaletarrak nahiz auzuetaquak.

Dan-danak ezauketia ixa eziñezkua dala uste dogu. Dana dala, batari eta bestiari galdetuaz, pillatxo baten aztarranak atara dittugu. Bestiak beste, barrenian lurrian jarritta agiri dira **Patxi** eta **Pedro Mari Osa** aitta-semiak, San Prudentzioko Sakonekuak, aizkolarixak eurak be. Ezkerraldian erdi inguruan, **Pedro Zufiria** errementarixa, San Juan kaleko **Klaudio Urtaza Kirrin** eta **Iñaxio Zelaia** arotza dagoz; postiaren aurrian **Joxe Mugartza** Zañartuko Zelaako behekoa eta bere aurrian **Migel Toledo** agustiñua; aldameneko gaztia Zañartuko Exibai Txikiñeko **Kandido Leturiaga** da, eta harutzatxuagoko mutikua **Migel Anjel Etxeberria**, Loiola txokolaterixakua; honen atzeko txapelduna **Eduardo Murua** dogu, San Juan kaleko arotza.

Goratuago joten badogu, Kanpantxoko **Fidel Erle** eta **Maletaneko Joxe(?) Urtaza** agerketan dira alkarren onduan; goikaldeko mutikuen artian, berriz, **Joxe Ramon Galartza** mediku-familixakua, **Alberto Etxeberria korriotarra**, kuarteleko **Zesareo de Miguel** eta Kale Barriko **Joxe Luis Altzelai** egitten xaku ezagunak; gero Olabarrietako gazte kuadrillia dator: **Emilio Ugarte**, Ximonenekua, **Jenaro Aizpeurrutia**, Erremitterikua, **Juanito Ugarte**, Errotakua, eta eskumarago **Julian Elkoroiribe**, Billar Goittikua; Etxebarrialdeko bi anai be hor dira: **Juanito** eta **Gregorio Erostarbe**; eta horrein tartian Tokilloko **Antxelmo Moia** arotza. Badira dudazko beste batzuk be. Ia identifikaitten lagunketan doskuzuen.

Argazkixak Oñatiko udal artxiboko Patxi Elortza fondokuak dira. Argibidiak eta beste erreztasun batzuk Pedro Mari Osa, Juanito Osa, Pilar Lazkanoiturburu, Pepi Igartua, Tomas Igartua, Joxe Luis Altzelai, Beatriz Irizar eta Izar Salaberriren bittartez eskuratu dittugu. Milla esker danoiri.

Ga ra



Grupo ULMA, S. Coop.

Garagaltza Auzoa 51, 20560, Oñati (Gipuzkoa)

T 943 25 03 00 www.ulma.com

grupoulma@ulma.com